Jabetzen naiz arazo honen konponbidea ez dela erraza, eta formula ere ezin duela Udalak bakarrik eskaini, Zumaiako bezalako kostaldeko eta turismoko herri baten egoera eta konplexutasun berezia ahaztu gabe. HAPOak hirigune finkatua planteatutako garapenak, denboran zehar, irtenbide bat eskaini ahal izango dute, nahiz eta orain Eusko Jaurlaritzaren dekretu berriak bultzatu dituen neurriak ditugun, hain zuzen ere, hirigintza-prozesu luzatuen izapidetzean kudeaketa arintzeko, denborak murriztu ahal izateko.

Alderdi sozialistatik aurkeztu dugun alegazioa, Guascor inguruan hirugarren sektorerako erabiliko den lurzoru bat, bizitegi-lurzoru bihurtzea baimentzea, ala bizitegi-erabilerarako espazio bat irabazteko.

HAPOan, datozen urteei begira, ingururako garapenak zabaltzeko joera duten bizitegi-konponbideak planteatu dira, eta uste dugu lehenik eta behin, bizitegi-gunetik gertuen dagoen eremua okupatu behar dela.

Bat nator Puntanuetan eta Aita Marin aurreikusitako garapenekin, irtenbide bat kiroldegia zabaltzearekin eta futbol-zelaia Puntanuetara eramatearekin konbinatzen saiatuz.

Aurkeztutako alegazioak aztertuta, gehienak interes oso zehatzei lotuta daude. Beste batzuek, hala nola Estazio auzoko edo Narrondoko bizilagunek aurkeztutakoek, espazio komunitarioaren ikuspegi orokorragoa zaintzen dute. Zumaiena parean ere, bidegorria konpondu gabe gelditzen da.

Alegazio batzuek HAPOaren proposamenak zuzentzeko eta bideragarri egiteko balio izan dute, hala nola Erribera kaleko 3 eta 5 zenbakietako proposamenarekin gertatutakoa, eta jende partikular batzuek ere, alegazioak egin dituzte interes orokorragoak defendatuz, eta eskerrak eman behar zaizkie parte hartzeagatik.

Aprobetxatu nahi dut, hirigintzako artxiboa digitalizatuta eduki behar dela gogorarazteko, alde batetik, gardentasuna mantentzeko, dokumentazio eskuragarritasuna eta espedienteen kudeaketa errazteko. Bestalde, langileei, bereziki, eta herritarrei, oro har, denbora aurrezteko beraien eguneroko betebeharrean. Gai hau, sozialistek aurrekontuetan negoziatu genuen eta laster errealitate izatea espero dugu.

Hasierako onarpen honen aurka bozkatuko dut, batez ere talde sozialistak aurkeztu dugun alegazioa ukatu egin delako, baina horrek ez du esan nahi etorkizunean ez dugunik babestuko HAPOn jaso diren proiektu batzuen garapena.

Orokorrean, gure iritzia da EH Bilduren gobernuak aurkezten duen HAPOaren proposamena kontserbadorea dela.



IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko Duñike. Nahi dezu zerbait komentatu? Bueno nik ere badaukat zerbait komentatzeko, baino bueno zuk ere.

ARGI YEREGUI EGAÑA:

Hasiko naiz. Oain dala astebete edo in genun bilera bat, danak presente zeundeten, eta hor oso garbi azaldu zan, legediak jartzen du gehienezko muga HAPO honetan 1180 etxebizitzakoa zala.

Baita ere garbi azaldu zuten margen bat edo erreserba bat mantentzea egokia zala etorkizunian planak ere berrikuspenak izan ditzakeelako. Orduan, bueno, konserbadoria dala esatezue, nei iruitze zait konparazioz ez dala hainbeste.

Urtemuga ere aipatu dezue. Urtemuga hori planan hasieratikan mahai gainean eon da. Iruitze zaigu holako aldaketa sustantzialak proposatzeko momentua ez dala.

Eta galdera bat botatzet: ez dakit nola azalduko zeniketen herriai plan osua atzeratzia, hain beharrezkuak baldin badia etxebizitzak, zuen erabakiangatik eta zuen enpeñoangatik etxebizitza guzti hoiek edo aldaketa sustantzial hoiek ekiteko, nola azalduko zenukete guzti hau, berriz ere hasieratik hasi beharra.

XABIER ODRIUZOLA ETXANIZ:

Ez, beak esan dun bezela, zortzi urteko kalkulua da 1180kua, eta bueno, guk ein deun kalkuluan, 15 urtea begira gutxi gorabehera... hemen dakat kalkulua, barkatu, 12 urtea begira izango litzateke 1866. Ordun, guk luzatzen deuna da horizontea edo, ertain-luzea, eta horregatik 1866an, 1300 bat jartzen dittugu guk. Margen bat geratzen da. Ba guk, bueno, jolasten deu 12-15 urteko epe ertain-luze horrekin.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Nik bai hemen zentratu nahiko nukeena, zeren azken finean, zuen ezezkoaren, kasu hontan EAJren ezezkoaren proposamena oinarritu da etxebizitza kopuruen baitan eta zortzi urte versus zuek 15 esaten dezute edo versus 20 urte, ez?

Nik ez dakit, aipatu deun bezela, ERDUkin bildu ginanian mahai gainean ipini zan baita ere dikotomia hau: 8 urte versus 15 urte versus 20 urte. Eta eta nik ustet argi laga zutela ERDUkoak zortzi urterako plangintza hau esponjatu daitekeela 20 urterako. Azken finean, gaur onartu dugun hau 20 urteko plana da, ez da zortzi urteko plana, zortzi urtetan ezin da gauzatu. Zuek uste dezue 680 etxebizitza gauzatu daitezkeela zortzi urtetan oaindikan martxan ipini ez



danian? Beraz, nik uste det hori ondo erantzunda dagola eta hortan oinarritzia plana honen kontra bozkatzeko jendia engainatzia dala nere ustetan.

Eta hori esanda, bai komentatu nahi det, ba bueno, PSEk egin zun alegaziua, azken finean Guascoren egitia etxebizitzak edo bizitegi hori re, bueno, behintzat gure azalpenak eman genitula zergatikan ez gendun ikusten han eta nik uste det ERDUkuak, beaiek ere azalpenak eman zituztela. Hiriaren jarraipenian hor eten bat dago eta izango litzake beste nukleo bat irekitzea. Badakit eztabaida haretan aipatu zala Narrondo. Narrondon ya badago nukleo bat eta egiten dana da osatu. Baino han dao haustura bat eta hasiko ginake bizitegi bat egiten eta hori da irekitzia, baitare, Santioko eremu hortarako bizitegia eta hori ez zan ikusi. Azken finean adostu gendun helburuetan eta irizpideetan ez zan aurreikusten hori. Eta hala da. Nik uste det azalpenak eman ziala.

Baina bueno hortan oinarritu nahi baldinzu zure ezezkuia sei urteko lan batei, ba bueno, bakoitzak bere hautua egiten du. Eta nik bai geratu nahi dudala Xabier, zure lehendabiziko esaldiarekin: eredu honekin ez gaude ados. Eredua finkatzen da irizpide eta helburuetan. Hor finkatzen da eredu eta danak alde bozkatu gendun, denak ados ipini ginan. Denak eztabaidatu gendun. Kasu hontan ez zeundeten zuek baina adibidez Iker bazeon eta Ainhoa ere bai.

Hemen eon ginan bilduta, bai Oierrekin eta baita ere Ricardo Peñarekin, Zumaian eondako bi alkatekin eta baita ere garai hartan zeon zinegotzia Arritxu Marañonekin eta mahai gainean ipini zian gai guzti hauek danak. Gai guzti hau danak ipini zian mahai gainian. Zuek aipatzen ditzuzuenak eta zuk aipatzen ditzuzunak Duñike, ipini zian mahai gainian.

Eta aileatu ginan adostasun batea esanez hori ez zala eredu. Irizpide eta helburua hor ez zeudela eta in gendun gaineko marrazketa bat. Esan gendun nun egin zitezkeen bizilekuak eta nun ez.

Nun ekipamentuak eta nun bai. Eta hori da gero garatu dana. Beraz, eredu finkatu in zan eta ados geunden. Orduan, "eredu honekin ez gaude ados" nei esan beharko didazue ze momentutan EAJK erabaki zun adostutako ereduak oain ez dula balio. Ze momentotan edo zeinek erabaki dun adostutako ereduak, oain ez dula balio. Edo zerren baitan erabaki dan hori.

Nik aipatu det hasieran hau herri proiektua dala eta herri proiektuan denon adostasuna beharrezkoa dala ta inportantea dala. Abiatu ginan ondo, adostasunakin. Ereduak irizpide eta helburutan finkatu zialako. Ta uain entzutia "ereduakin ez gaude ados", nik hemen kapitulo bat baino gehio galdu det, bat behintzat bai.



Beraz, gustatuko litzaidake jakitia ze momentotan erabaki dun kasu hontan EAJk aldaketa, eta baita ere PSEk ze momentotan erabaki dun adostutako hori aldatzia. Eskerrik asko.

XABIER ODRIUZOLA ETXANIZ:

Eredua aipatzen danean, zeuek aipatu zenuen bezela, ba epe motxekoa da. Aipatu zenuten kontserbadorea eta guk esaten deuna zortzi urtetatik gero hogeitau urtea jungo danai eman behar zaiola zabalgunen bat, 15 urtea begira. Horregatik, guk eredu hitza erabiltzen dugunean denboralizazioan adierazten dugu, izan behar dela epe ertain-luze baterakoa.

Objetibo eta kriterio esaten dezunean, pauta batzuk jartzen ditu gero erredakzioa egiteko. Bai? Jartzen du gainera bederatzigarren orrian, nahiko buelta eman dizkiotelako.

Baino gero, esateizut, bakoitzak bere alegazioak eta bere ikuspegiak txertatu ditzazke, baina gero boluntade politikoaren arabera, txertatzen dira edo ez. Txertatzen direnak ondo eta ez direnak txertatu, gureak bezala, ba bueno, ez dira txertatu.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Ez dut ezer ulertu. Azken finean, ze puntotan erabaki zenuten eredu etzala egokia? Eta 680 eta eremu hoietan, adostu gendun eremuetan egin zitekeen etxiak, ze momentotan erabaki zenuten, ez zala hala. Eta beste espazio batzuk okupatu nahi zenituztela. Ze momentotan? Zeatikan berriro diot, 8 urte versus 15 versus 20. Hori argitu zitzaizun, teknikoki ERDUkuak.

Orduan, ze momentotan erabakitzen dezue, adostu zenutena, denon artean adostu gendun ze espazio okupatu gendun eta uain beste espazio batzuk gero gehitzea, ze momentotan erabaki zan? Edo nun erabaki zan?

XABIER ODRIUZOLA ETXANIZ:

Lehen erantzun dizut pauta batzuk direla HAPOa idazteko, beatzigarren orrian jartzen den bezela, baino gero horrek zabalkunde bat daukela. Oinarri hortatik hartu ta gero HAPOarekin ados egotea salto haundi bat da. Orduan, baiezkoa bozkatu genun baino horrek ez du nahi esan ondorengo pauso guztiekin ados egon behar degunik. Baino esateizut, behin betikorako, denbora hontan ahalko bagenu, nola edo hala, boluntade politikoaren arabera, elkartze bat eduki, ba aho batez bozkatzeko aukera da egokiena.



IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Nik uste det, eztakit e, aipatzen dezun beste aholkulari talde horrek, azaldu dizun nola dan prozesua. Eta behin-behineko onarpenaren ondoren ez dago alegazioentzako epia, COTPVra dijua eta COTPVk planteatzen ditun zuzenketak edo sektorialen batek edo beste batek egiten dun zuzenketak, hoiek dia txertatuko dianak planian.

Ze adostasuneta ailatuko naiz zuekin ezin baldin badegu behin-behineko hori modifikatu? Ze adostasuneta ailatuko gea? Adostasuneta aileatu ginan bere momentuan mahai honetan. Eta gainea gogoratzen naiz ze postutan kokatuta zeundeten bai zu eta bai Oier eta bai Ricardo ta bai teknikariak. Mahai gainean ipini gendun bariantetikan bestaldea salto egitea. Ipini zan mahai gainean. Eta ERDUk eman zitun bere arrazoi teknikuak eta bere azalpenak. Eta guk ere aipatu gendun, ba bueno, momentuz ez gendula baztertzen. Baino planaren helburuak eta irizpideak jarraituz, edo behintzat lehendabiziko gauza eskatzen dutena da okupatu aurretikan espazio hoiek, balio agrikola haundiko espazio hoiek, legeak hala dion bezela, osatu egin behar ditugula beste espazio guztiak eta kolmatatzen danian, orduan hasi gaitzezkeela pentsatzen beste zerbaitetan.

Hala esaten zanez. Esan zan: bueno bale, ba oaingo plan hontan ez degu salto emango, baino bai eskatu zitzaigula EAJren partetik egiteko, nola zan, "reserva de suelo". Eta lehengoko ERDUko bileran aipatu zitzaizuen bezela, bere momentuan ere aipatu zuten figura juridiko hori indarrean ez dagola Euskal Erkidego Autonomoan, Nafarroan, bai. Hemen ez. Orduan, ezin zala "reserva de suelo" bezela ipini. Hori argi geatu zan eta bueno hori denok ulertuta, ba bueno, hartu zen erabakia hori ez sartzia planian. Eta hori, irizpide hori da jun zana helburu eta irizpidea. Nun finkatzen zan, ze eremu okupatuko genitun ta zein ez.

Eta aipatzen zan hasieratikan plan hau berez legeak zortzi urterako iten dala, baino zortzi urtea iraupena ez dauka plan bat e. Eztet ezautzen bat bea ere. Zuek ezagutzen dezue plan bat, zortzi urte irautzen duna ta berriro HAPOa lantzen dana?

Ez da existitzen. Denok oso argi geneukan eta daukagu hau 20 urteko plana dala. Onartzen baldin bada behin betikoz, hogeta zazpian, berrogeta zazpita arte, hemen ibiliko geala bueltaka. Ba aurreko arau subsidiarioekin gertatu dan bezela, 2004ean onartu zian behin betikoz eta 2020an hasi ginan lanketan da. Eta dana ondo baldin badijua, ba hogeita zazpian ea onartzen ditugun. Hogeta hiru urte beranduago. Denok dakigu zertaz ai gean hitz egiten. Orduan, ez dakit ze momentotan eta ze kalkuluaren arabera, beste bariabile hori sartu dan eta eta hori dan diskordantzia, onartzeko ez onartzeko plana.



Eta kaso bea, Duñike, bestaldian ere ipini izan gendun, Guaskor mahai gainean ipini izan da eta aipatu gendun ERDUko bileran. Bertako jabeak, Altuna y Uriak guri planteamento asko egin diu han etxebizitzak egiteko. Etxebizitzak de millón de euro eh. Eta horrei behin eta berriz esan zaió ezetz. Eta arrazoi printzipala da, iten dezunian trama urbanua eten bat daon tokian, beste trama bat egitea gaur eguneko irizpidearen kontra dagoela.

Ta hori entzunda eta hori gureganatuta, erabaki gendun denon artian, baita ere momentu hortan zinegotzia zeon Arritxu Marañonen partetikan okupatuko zian espazioak okupatzea eta ez beste batzuk.

Etxebizitzak egiteko, jarduera ekonomikoak egiteko, espazio libreak egiteko, ekipamentuak egiteko. Orduan, gero alegazioen epia sartzen da, baino klaro, alegazioak dia xehetasunetan: Ba hau pixkat honea, hau honea, baino bizitegi ez zan eremu bat bizitegi izendatzea ez da eozer moduzko alegaziua ta hori erantzun da. Eta 870 etxebizitza eitia, 1300 eitia ta okupatzia beste espazio bat, ba ez da eozer moduzko ekarpen bat. Ez da alegazio bat, da enmienda a la totalidad.

Horreatikan ezezkoa proposatzen dezue zuek bozkatzeko, baino berriro diot, aukera bat dakau datorren 20 urteko herria nola izango dan irudikatzeo denok konsensuz egitea, aho batez egitea.

Hori lortu gendun bere momentuan eta eztakit ze momentotan erabaki dezuten bai Alderdi Sozialista eta bai Eusko Alderdi Jeltzaleak hau ezezkoa esatea. Beste dana, uste det teknikoki, juridikoki azaldu zaizuela, ezinezkoa dala, beraz, honekin mantentzea... Nik hemen kapitulo bat galduta dakat. Bat, bi edo hiru.

XABIER ODRIUZOLA ETXANIZ:

Iñaki, nahi badezu bukatzeo...

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Ez, ez, bukatu nik ingo det...

XABIER ODRIUZOLA ETXANIZ:

Bueno, neuk bukatzeo. Bai? Etxebizitza krisi bat dela denok gaude ados, edo bueno, esango nuke baietz. Tentsiopeko eremua eskatu genuela ere, geuk eskatu genuen. Bagenekien 20 urte horietan helburu batzuk bete beharko genituzkeela.



Denok bozkatu genuen baietz... Denok bozkatu genuen baietz... Bai? Zuek, Udalak eskatu zenuen eta denok baietz bozkatu genuen. Bai? %20ko babes publikoko etxebizitzako parke bat lortzea HAPO honekin ezinezkotzat ikusten degu. Eta horregatik iruitzen zait ba...

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Barkatu, barkatu, Xabier, % 60 baino gehio dago HAPO hontan, es que lehen ere esan dezu %20 ta uste nun akats bat izango zala, baino errepikatzeakuan, ez dakit zer irakurtzen ai zean, zeinek idatzi dun hori, baino hostia, % 60a dala.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Zumaian dauden etxe guztien %20ak izan behar du babes publikokoa.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Herrian daude ia 5000 etxebizitza.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Hoietatik % 20a, lorpen bat, helburu bat da % 20a izatea babes publikoko etxeak.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

1000.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Kalkulua izan daiteke 1000.

Eta 800 etxe etxebizitza egiten baldin badituzu eta iten baldin badituzu 1100 eta denak nola ezin daitezkeen babestutakoak izan, ezta zuen proposamenakin ezin daiteke.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Kalkuluak eginda, gutxi gorabehera gaur egun %5a da daukagun egoeran. HAPO honen onarpenarekin % 11-12ra iritsiko ginen eta gure 500ekin kalkulatzan dugu 20tik oso erre egongo ginela. Kalkuluak eginda daude. Nik berriz diot, bozketa politiko bat da, eta bueno, onartu behar da.



IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Nik onartzen det bozketa politikoa e, baino hala ta guztiz ere, ez diazu erantzun noiz erabaki dun EAJK aho batezko adosteatikan irizpidea eta eredua, noiz pasa gean eredu hau ezatala ona.

IKER MARDARAS ARRIETA:

Iñaki, erantzun dezaket? Xabierrek esan du eta zuk ere esan dezu, hau prozesu luzea izan da eta orokortasunetik konkretura goaz. Eta guk onartu genuena da irizpide ta helburu batzuk, nun eredu bat sartzen da edo bestia.

Ze azken finian helburuetan eta irizpide hortan sartu daiteke modelo hau, edo beste modelo hau. Eta horregatik guk baiezkoa bozkatu genun. Ze azken finean ba adostasun batekin hasi behar zan eta gu klabe horretan jun ginan eta hor erredaktatu zen dokumentua, irizpide eta helburu dokumento bati dagokion bezala, orokorra da eta flexiblea da.

Eta egia da, hor dokumentu eta bilera asko izan genituen eta oso parte hartze handia egon zan eta gu horretan oso kontentu gaude prozesuarekin. Hori horrela izan da. Baina hor modeloan, gauza batzuetan, sartu zian, ados egon ginen sartzeakin, beste batzuk kanpoan gelditu ginan, baina guk ez diogu uko egin Basusta jutea edo trenbidean beste aldea jutia. Ez dakit nundikan ateatzen dezun hori. Ze gu horri ez genion uko in. Baieztatu genun eta ados egon ginan irizpide eta eredu batzuetan, nun flexibleak dian eta ireki dian, hala behar izan duelako.

Eta ERDU ez da hemen epai nagusia eta Jaungoikoa edo zera. Guk ere badaukagu gure aholkuritza teknikoa eta gu ere kriterio tekniko batekin gaude. Eta Basustakoa edo trenbidekoa jutia kontinuidade urbanoa mantentzen du. Ze azken finean pasabidea dago Otezuritik eta Torreagatik iten denian, ba beste aldetik Basustara ere kontinuo urbanoa da.

Beraz, horren gainean eta horretan guk jarraitzen dugu gure proposamenarekin. Eta beti daukagunean nolabaiteko "ventana de oportunidad" bat, hau da, alegazioekin osatuko degu, zeatik ez? Aukera daukagulako.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Ados. Kontu bat, aipatutakoari. Nik ez dakit, berriro ekarri beharko dugu dokumentua irizpide ta helburuetan, hor markatzen da ze okupatuko dugun, ta ze ez dugun okupatzen.



Eta Basusta gaina eztala okupatuko etxebizitzak iteko hor markatzen da e. Begiratu dezue, mesedez, dokumentua? Edo zuen aholkulari horrek begiratu du? Ba hor oso argi geatzen da, eta hori adostu gendun han, ez zala erabiliko bizitoki bezela, plan honetan, adostu, hori adostu genuen.

IKER MARDARAS ARRIETA:

Avanceko dokumentuan bai. Baina hemen, pleno hontan, bozkatu zana izan zan irizpide eta helburu dokumentua. Ez Avance dokumentua. Ez zaitetz nahastu.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Barkatu Iker, baino nahasmena ez dakit zeinen teiltatu azpian dagoen momentu honetan. Zeren azken finean, eta ERDUkoekin bilera eukiko bagenuke, ERDUkoekin diot, beaiek dialako talde erredaktorea eta ez beste inor. Beaiiek dira talde erredaktorea. Oso argi esaten dute irizpide eta helburuen dokumentua garatu, artikulatu, horreatikan azpimarratu det hasieran, badakit peñazo bat izan dala, baino asko azpimarratu det hori besterik ez dutela egin. Orduan, hemen ai gea tranpatxua egiten, zeren azken finean adosten dugu dokumentua, nun markatzen dugun hemen ze, hemen bai, hemen ez, hemen ez dakit ze, hemen badakit ze... Emaztea ya preokupatuta 15 minutuko plenoak iteitugu ta.

Eta ze bai, eta ze ez. Eta gero egiten dana da hori garatu eta artikulatu. Eta esaten da: bueno hemen esan baldin badegu bizitoki eremu bat izango dala, in beharko dugu marraztu, fokua jeitsi eta fitxa bat egin bere zeakin, espazio libreak eta dena delakoa. Baina hasieratikan esaten dugu: hemen etxebizitzak egiten dia, hemen ez.

Ta hori da adostu genduna. Ipiniko zeate nahi dezuen bezela. Eta gero, bai zuk Iker eta bai Xabierrek azpimarratzen dezue... Kasu honetan zuk ez, baina zuk bai kasu hontan, baina zuk behin baino gehiagotan azpimarratu dezue beste talde erredaktore batekin. Eta esan nizun mesedez ez deitzeko zuen aholkulariei talde erredaktorea. Bai, bai, aholkularia. Bai, baina lehengoan errepikatzen zun, horregatik diot... (zerbait entzuten da fondotik) Ah, pulpo por animal de compañía. Bale. Aholkularia. Bai, bai. Bueno, ez dakat presarik. Aholkularia. Gogoratu behar det ERDU ez gendula guk aukeratu e. ERDU ez da talde erredaktoria Udal gobernuarena e.

Lizitatu in gendun. Eta zuen aholkulariak, dirudienez, baita ere parte hartzen dute beste lizitazioetan eta plan orokorretan eta holako gauzetan. Eztakit aurkeztu zian hemen edo ez. Eztakit, ez dut gogoratzen. Bi aurkeztu ziala gogoratzen dut. Ez nitun ezagutzen ez bata eta ez bestia. Ta gehio esango dizut: hasieran batzuk etortzen zian, gero beste batzuk, hasi ginan ERDU



barruan batzugin ta gero besteekin. Baino hemen, parte-hartze prozesu guztietan eta lanketa guztietan bezela, lizitatzen darian eta ateratzen darian talde bat, beaiek dira gure aholkulariak. Denon aholkulari juridiko, tekniko eta ekonomiko, eta baita ere erredaktatzen duena. Ez nik nire aholkulariak dira haiek eta zuek daukazue zuenak. Hemen ez gaude konfrontazio horretan. Bueno, hori ez dago hemen mahai gainean. Baina Ikerrek aipatu du zuen aholkularia. Eon Pixkat, eon pixkat. Zure txanda denean. Bestela ezingo degu konpatibilizatu.

Eta behin baino gehiotan ERDUkin euki gendun bileran eztabaida hori euki gendun baita ere batzordian, Xabier. Eta zuk behin eta berriz, eta gainea, oso iltzatuta daukat zuk esandako esaldi bat ERDUkoari esanez: zuek esan ezazue nahi duzuen baina nik nire talde erredaktoreari sinesten diot. Ta orduan, horrela eztabaida bat eukitzia oso konplikatua da. Eztabaidan bakoitzak ipintzen ditu argudioak bat bestien gainian eta aurrera joateko aukera dago. Baino es que hasierako parametrotan, "nei esan didatelako norbaitek hemen geratzen naiz"... oso zaila da hor adostasunetara aileatzia.

Nei kriston pena ematen ditena da, hainbeste lan egin ta gero, hainbeste herritarrek parte hartu ta gero, hainbeste ekarpen egin ta gero, adostia hain zaila danakin adostia hiru talde politikoak helburuak eta irizpideak, eredu adostu ondoren, zeatikan jeitsi zeaten adostasun horretikan, bai zuek eta bai zu. Nei kriston pena ematen dit. Eta zuk aipatzen dezu behin betikoko prozesu honetan aukera badagola adostasuna aileatzeko.

Ba aholkulari horrei mesedez esaiozue hobeto aholkatzeko, zeatikan behin-behinetikan behin-betikora COTPVk egiten ditun ekarpena bakarrikan gehitu daiteke. Ta hoiek bai eziala ez neriak eta ez zuriak, eztaikit zein koño dian COTPVkuak.

Beraz, aukerik ez dago. Gaur zan aukera adostasunea aileatzeko. Eta adostasuna bazegoen, eztaikit zeatikan puskatu dan. Nik eztaikat askoze gehio esateko e, nahi dezuena esan zazue.

DUÑIKE AGIRREZABALAGA UGARTE:

Bueno, a ver, HAPO bat bizirik dagoen dokumento bat da. Sei urtetan eon baldin bazeate dokumento hori prestatzen edo eon gea edo beste batzuk eon dira, bueno ba egongo gea aldatzen. Kontuan euki behar da behin onartu ezkeo ere, modifikazio pilo bat egiten direla.

Eta 20 urte hauetan dokumentua euki deu, legian barruan ibili gea eta aldaketak egon dira. Irizpide aldaketak ere bai. Eta nik ustet oandikan ere esplikatu dezute aldaketa batzuk ere egon behar direla. Iñaki, juridikoki, gauzak egin daitezke.



Eta gauza bat da batek zer defendatu nahi dun. Eta errepikatu in dezu eztakit zenbat aldiz denboa guztia berdina. Iñaki, ta horreatikan ez dakazu ez arrazoi gehio ez gitxiyo. Ezberdintasun politiko ba dao momentu hontan eta listo. Eta zuk galdetu Zumaian, partaidetza asko egin da, baino zu jun kalea, in zazu inkesta bat Zumaian ta jendeai galdetu nun nahio dun bizi Narrondon edo Guaskorren. Eta klaro, esan dezu milioiko etxebizitzataz hitzein zuela Altuna y Uriak. Zuk hitzeingo zenun Altuna y Uriakin. Nik eztet inorrek in hitzein, baino kalkuluak ere badazkit egiten.

Hor jarri nahi dezue parking bat. Bueno, ikusiko deuu ze nolako parkinga. Klaro. Hor, Guaskorren parian, hor sarreran nahi dezue parking bat jarri. Bueno, ez naiz sartuko gauza askorekin.

Gero desarrolluan, ba bueno, sartuko gea eta plan batzuk onartuko ditugu eta beste batzuk ez. Baina jendeak nahi du Zumaian inguruan bertan bizi. Ez du nahi ez Arrura jun. Ta Narrondoa eztet esango jendeak ez dula nahi Narrondon bizi.

Eta prezioan gorabehera izango da. Ta ai gea hitz egiten babestutako etxebizitzak. Oain ai gea Zumaian iten etxebizitzak. Zein ai dia erosten gaur egunian Zumaiko 400.000 ta 500.000ko etxebizitzak?

Zein ai da erosten? Egia da oaintxe egin dala zozketa eta batzuk sartuko diala babes ofizialean. Baina ze prezioko etxebizitzak ai egiten Zumaian?. Hori da galdera. Eta herritarrei galdetu nun nahio dun bizi Narrondon edo Guaskorren. Eskerrik asko.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Seguraski nahiko dute Kantauri Plazan bizi edo Moilan bizi. Bata bata edo bestian. Nik uste det gehienak nahiko dutena dela bizi. Etxebizitza eskuragarri bat edukitzea. Hasieran aipatu dut, ez da bakarrik Udalaren eskumena etxebizitzaren gaia. Noski, 500.000 euro ordaintzen ai diala. Eta nik esan det hasieran gure eskutan daola HAPOaren instrumentuakin nun egin bizilekuak eta nun ez.

Eta hemen planteatzen dianak 680 etxebizitza, % 60an baino gehio babestuta. Eta hoietatikan 185 alokairu sozialekua. A ver ze 10.000ko herritan dakazun 185 etxebizitza alokairuak etorkizunian. Hori ez baldin bada irtenbidea, esangoiazu zer dan irtenbidea.

Eta, klaro, esaten dut hau zeren ez da bakarrikan gure lana hori aurrea eramatea. Jaurlaritzaren lana ere bada eta beste erakunde batzun lana ere bada. Gure instrumentua da HAPa eta guk seirehunda larogei etxebizitza berri



planteatzen ditugu, % 60a baino gehio babestua eta 185 alokairukua. Hori, pelma izango naiz, baino behin eta berriz mahai gainean ipini behar dut. Eta plan horrei ezezkoa bozkatu behar diozue. Nei iruitze zait, joder, gero ez etorri kalian esaten dizutela... ba jun kalekuai eta esan ezezkoa bozkatuiozula plan hau aurrea eramateko.

DUÑIKE AGIRREZABALAGA UGARTE:

Nik ustet, esan dan esan dan bezela hamen, erakunde askoren arteko lana da. Bueno, besteak ere eskertuko genuke beste erakunde batzuetan adostasuna lortzea. Ta ez da hori hain erreza, ez hamen, ez Gasteizen, ez Madriden eta ez beste leku askotan. Eskerrik asko.

ARGI YEREGUI EGAÑA:

Azkenengo puntualizazio bat. Es que iruitze zait pixkat eztabaida ai dala juten adarretatik ta hemen inportantiena dala talde erredaktore bat dakau, lñakik esan dun bezela, beaiek idazteute plana, beaiek eraman dute aurrea ta bertako juridikoak esate baldin badute zuek proposau dezuena kanbio sustantzial bat dala eta hasieratikan hasi behar deula, da hasieratik hasi beharko ginakeela. Eta esaten ai gea lau urteko lana basureta bota beharko genukeela eta sei urteko lana berriz hasi berko ginakeela. Hori galdeu dizuet hasieran: nola azalduko diozue herriai, sei urte berriz, hasieratikan hasi beharko ginala eta alokairu sozialeko etxebizitza guzti hoiek ez liakela eingo hemendikan sei urte arte. Es que galdera horrei eziazue erantzun ta azkenean jun gea adarretatik. Baino es que berdinea bueltatze gea: kanbio sustantzial bai bata eta bai bestia. Hori eztef nik esaten. Hori ERDUko teknikoak esateute.

DUÑIKE AGIRREZABALAGA UGARTE:

Baino hori legeki aldatu dezakegu.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Galdera hori eginda daukat gure talde erredaktoreai. Horrek ez du nahi esan, zuk esan duzun bezela, zuena ez dela gurea. Barkatu, barkatu, gure aholkulariari. Eta aipatzen du limitatuta eraman daitekeela, hasierako onespenera, bakarrik aktuazio hori. Eta era oso azkar batean bueltatuko ginakeela. Galdera egin nion eta idatzita berak bueltatu dit berdina, aholkulariak. Ta aipatu zian era oso azkar batean bakarrik egingo genukeela aktuazio hoiien limitatutako hasierako onespen eta partaidetza bat. Eta ez zela arazorik egongo 3-4 hilabeteen buelta emateko eta bozkatzeko berriro behin-behinekoa. Eta denboraz, sei urtetik 3-4 hilabete, ba esate zun pena merezi zuela hori egitea.



IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eztakit tranpak egitea da. Bilera hartan aipatu gendun bezela, o sea, aipatzen dira arrazoi juridikoak, zuri esan dizula norbaitek mahai gainean ipintzeko. Ordun ere esan nizuen parte-hartze horretan eta eztabaida horretan aurrerapausoak emateko eta ganorazko eztabaidak emateko etorri behar zineten aholkulari hoiekin. Talde erredaktorioekin eztabaidatzeko, ea hala zan o ez zan baino ez. Baina ez nei esan didate, nik zuri esateizut, zuk nei esaten det, nik harek esaten det, nei esaten dit, ostia, ostia.

IKER MARDARAS ARRIETA:

Nik esaten det aholkularitza batekin eta listo. Azken finean dana legearen arabera da eta tarte erredaktoreak ez dauka hemen... kriterio bat markatzen du, baina ez da kriterio bakarra.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Ulertu dezue ze esan dizuten e Iker? Frustrantia dala bilera hoietan egotea eta zure interlokutorea edo eztabaidatu nahi dezun pertsona, kasu hontan Xabier, esatia, honek esan dit, zuri esateizut, zuk niri esateiazu, nei esateizut... eta behin baino gehiotan aipatu diot: etorri daitezen zuri aholkatzen zaituzten pertsona hauek eta talde erredaktoriak eta udaletxeko teknikoarekin eta ea eztabaida eraikigarri bat egin dezakegun eta aurre egin dezakegun, zeren igual dauka jakintza bat gure udalaren talde erredaktoriak eztaukana.

Baino klaro, hori mahai gainean ipini beharko da esanez ze arau, ze lege, ze normatiba. Baino esan dit, esaten dizut posible dala, nei esan didate eta horrekin aurrea dijoa... Hola ezin dugu aurre egin. Es que ezin dugu. Ulertzen diguzue, ezta? Es que nei esan dit. Aizu, ERDU, nola hauek esan duten, posible da. No, no. Baino ezta posible honeatikan, honeatikan ta honeatikan ez. Ez, es que neriak esaten du baietz. Baino zertan oinarrituta? Ez, galdetukoiot. O sea, eztabaida hori eman deu eta Kafkianua da.

No hay japonés que tienda esto. Ta orduan horreatikan sakondu nahi dut honetan eta pelma izaten ai naiz eta aspertzen ai naiz, baino es que sei urteko lanaketaren ondoren, egoera hontan ailtzia erabat frustrantea da eta berriro galdetzen dut: ze puntotan erabaki zenuten politikoki ezezkoa bozkatzia? Zeatikan beste danak aitzakiak dira.

XABIER ODRIUZOLA ETXANIZ:

Erantzunak eman ditugu. Aholkulariak, lehen esan dezun bezela, beste herrietan ere HAPOak idazten ditu. Galdera zuk egindakoa zehatz-mehatz egin nion? Erantzuna horrela izan zen.



ARGI YEREGUI EGAÑA:

Nik hori ez det galdetu. Nola azalduko diozun herriai.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Ustet erantzunda daudela gauzak e.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Nere ustez ez, baina bueno, guazen bukaera bat ematea. Bueno luze diju, baino nik uste det sei urteko lanketa baten ondoren eta hain gai garrantzitsuak bazeukala, ba bueno, eztabaidatzeko. Ez deu askotan eztabaidatzen eta behingoz eztabaidatzea ez dago gaixki. Bueno, ba bozkatu ingo dugu.

Aldeko botoak: 9 (9 EH Bildu)

Kontrako botoak: 7 (6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

ZUMAIAKO HIRIGINTZA ANTOLAMENDUKO PLANGINTZA OROKORRARI BEHIN-BEHINEKO ONARPENA.

2.2.- 2026KO 4.KREDITU ALDAKETAREN PROPOSAMENA AURKEZTEA ETA IRIZPENA BOZKATZEA, HALA BADAGOKIO.

Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2026-KALD-000004-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamenaren irizpena:

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Ordezko kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, Ogasun batzordeak



ERABAKI DU

Lehenengoa.- 2026ko apirilaren 22an ospatzen den Ogasun Batzordeak onartzea/ez onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|------------------------------------|---------------------------------|---------------------|
| 2 | ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK | 522.832,13 |
| 4 | TRANSFERENTZI ARRUNTAK | 30.996,95 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 1.709.373,80 |
| KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA | | 2.263.202,88 |

FINANTZAKETA

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|----------------|----------------------|---------------------|
| 8 (SARRERAK) | ACTIVOS FINANCIEROS. | 2.263.202,88 |
| GUZTIRA | | 2.263.202,88 |

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Aldeko botoak: 4 (3 EH BILDU; 1 PSE)

Aurkako botoak: 0.

Abstentzioa: 2 (EAJ)

Proposamen hau Ogasun Batzordeak onartzen du, eta ondoren Osoko Bilkurari bidaltzen zaio, Osoko Bilkuraren onarpenaren ondorioz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera behin behineko onarpena bidaliko da, eta hamabost egunez jendaurrean ezarriko da.

Zumaian, sinadura digitalaren datan.

Ordezko kontu-hartzailea

Batzordeburua

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Hemen ere luzatu in beharko gea, zeren azken finean kreditu gehigarri hau, ba hori, gerakinetikan datorren kreditu gehigarria da. Eta hola, hor gainetikan aipamen batzuk egingo ditut. Danak ez ditut aipatuko. Zerrenda hor dakazue. Bueno, zerrendan hasieratikan, hemen gehitzen dira hobetze obrak bide publikoetan egiteko 538.000 euro, 43.000 hainbat gastu Moilaberrin egiteko, azken finean, obra gauzatu ahal izateko ta azkenengo, ba bueno, gastu



gehigarriak estaltzeko, kopuru hori jartzen da. Hirigintzako azterlanak, beste 93.000 euro. Gogoratu nahi det ez soilikan azterlanak, baizik eta obra zuzendaritzak eta prebentzioko laneko edo arduradunen gastuak hemendikan juten dala. Orduan, obra guztien partia ere hemendikan juten dala.

Beste alde batetik, hiri altzarietan, 31.600 euro. Haur parkeen inbertsua, kopuru potente bat: 430.000 euro. Skate parka aurrera ateratzeko eta obra lizitatzeko 225.000 euro. Errekarga punto bat martxan ipintzeko, 48.000 euro. Bide publikoen mantenua bermatzeko beste 50.000 euro gehitzen ditugu zegoen partidari. Hemen bai, argiteri publikoan bi gehikuntza dazkaula: mantenurako 20.000 eta inbersioak egiteko beste 35.000.

Brankan konponketa eta kontserbazioa 35.000 euro sartu ditugu. Badakizue hobekuntzak egin biharko dala Brankan eta hoiek egiteko. Kaleko komunak eta azoken konponketa. Hemen, ba bueno, komun publikoak pixkanaka berritzen jungo gea ta partida hori hortarako da. Hemen aipatzen dut, ez kopuruatikan, baizik eta garrantzia daukalako haur eskolarentzako konponketarako 8000 euro gehi 3000-11.000. Jubilatuen etxeko konponketa, 15.000 euro Hogarrian egiteko.

Eta gero, ba bueno, hor badaude kiroldegian eta Oikian egiteko 6500 kiroldegian ta Oikiko pilotalekuan 8000 euro. Aitzuri frontoiko konponketarako 10.000 euro. Dakizun bezela, saria erori zan eta hori konpondu beharra dago. Aitziriko argiteria berritzeko 40.000 euro eta LEDetara pasatzeko. Itsas kiroldegi grua 20.000. Konponketa ta manteneamentua udaletxian 20.000 eta instalazio teknikoak 20.000 baita ere udaletxian, ba ya nahiko zaharkituta daudelako.

Hemen bai daola 160.000 euro ur horniduraren azpiegituretan. Aipatu nun Batzordian ur hornidurako tuberiak, pasatzen dana Urola ibai azpitik, galera dauka ta orduan, ba bueno, inbertsio bat bihar da hori konpontzeko. Eztala zanja bat irekitzea, baizik eta ur azpiko zea.

Erribera leko partidai 53.000 euro gehituko diogu, eremua gehio hartuko dugulako eraberritze lan horretan. Gero badaude batzuk Urola Kostako, ba bueno, moldaketak egiteko. Lorezaintzako kontratuan ere gehikuntza bat dago, parke berriak sartu dialako.

Algorriko kudeaketako kontratua gehitu dugu, aurreikusten gendulako epe bat baino negoziazioa Aldundiakin luzatzen ai da ta badaezpada beste hainbat ipini dugu. Eta hondartzetako zaintzarako 21.000 euro ipini dugu. Dakizuen moduan, sorosleen kontratua atera dulako kontratazio zentraletikan Aldundiak. Eta bueno gehitu ditugu zerbitzu berriak sorosleen zean eta hortarako, osatzeko, 21.000 euro. Beraz orotara 2.263.000 euroko kreditu aldaketa da proposatzen dana hemen.



Zerbait komentatzeko? Esan.

IKER MARDARAS ARRIETA:

Bueno hau azaldu dezunez zehatz eta mehatz, 2,3ko milioiko gehikuntza suposatzen du. Eta diruzaintzako gerakinetik finantzatzen da. Alde batetik ba bertan guk emendakin bidez aurkeztu genituen proiektu batzuk daude. Eta isladatuta ikusten ditugu ba haur parketan 430.000 euroak, Errekarga puntuak azkenian, a ver eiten dian, 50.000 euro ia. Eta argiteri mantendua eta kal eko komunetan 20.000 ta 30.000 euro besteak beste.

Bestetik, ulergarria deritzogu, ba bueno, kredito gehikuntzak egitea. Azkenean gauza bizia da aurrekontua, baina ez maila edo modu honetan. Eta batzutan aurrekontuak eiten ditugunean komentatu dizuegu praktika hau. Azken finean planteatzen ari gara aurrekontu osoaren % 10a baino gehiago sartzea momentu hontan. Hasierako aurrekontua ez du benetan gobernuaren lehentasunak isladatzen horren ondorioz eta erabaki garrantzitsuak aurrekontu eztabaidaren une nagusitik kanpo eramaten dia.

Baina bueno, baina proiektu hauek azken legealdiko urtean baldin badira ere, ba bueno, beteko direlakoan eta ez promesa hutsetan, abstentzioa bozkatuko degu. Besterik ez.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko. Duñike zerbait komentatzeko? Bueno, nik soilikan aipatu, noski, negoziatzen egon ginanian aurrekontuak eta azaldu genizuen gerakinen inkorporazioetan azaltzen ziala zuek planteatzen zenituzten batzuk.

Gero horren arabera hartu zenuten erabakia, baina bueno, behintzat gure borondatea azaldu gendun orduan eta hemen islatuta geatzen da borondate hori. Badakizu, aurrekontuen egonkortze arau bat dagola eta arau fiskalak eta hoiek danak indarrean daudela eta horrek asko mugatzen dula aurrekontu batzuk koadratzea. Eta txokatze zait aipatzia gerakinetikan inkorporatzen ditugula beste proiektu batzuk.

Eztakit, 2019an sartu nitzanian hemen, euki gendun, gainea gogoratzen dut, zu re han zinan bilera hartan eta azaldu zenidaten, ba bueno, inkorporazioaren bidez zenbat proiektu zeuden pendiente egiteko.

Zerrenda kopuru antzekua edo haundio zan. Zeuden sei o zazpi proiektu haundi. Eta horreatikan txokatze zait. Zuek erabiltzen dezuen figura, guk erabiltzen dugunian eta udal danak erabiltzen duenian, hori re kritikatuia izatia. Ez dakit, erabat harrigarria egiten zait.

IKER MARDARAS ARRIETA:



Matizazio bakar bat, gauza bat da inkorporazioa aurrekontuarena eta beste bat gehigarria.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Nik aipatzen dizuten zerrenda guzti hura gerakinetikan inkorporatzen zianak zian e, ez inkorporaziuak, aurreko gastatu gabekoak inkorporatzean gerakinetikan ekarritakuak. Oaindikan buruan dakat ze proiektu zian gainea ta. Horregatikan txokatu zait.

Dena den, goazen bozkatzea.

Aldeko botoak: 10 (9 EH Bildu eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 6 (6 EAJ-PNV)

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

4.KREDITU ALDAKETA ONARTZEA

3.2.- ZUMAIKO PORTUAN BIDAIARIEN ITSAS BIDEZKO GARRAIO ERREGULARREKO ZERBITZUAN TARIFAK INTEGRATZEKO SISTEMA EZARTZEKO HITZARMENAREN TESTUA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

**ANTOLAKETA BATZORDEAREN IRIZPENA
ANTOLAKETA INFORMAZIO BATZORDEAREN
IRIZPENA, MUGI HITZARMENA**

**DICTAMEN DE LA COMISIÓN ANTOLAKETA
DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA
ANTOLAKETA, CONVENIO MUGI**

ERABAKI-PROPOSAMENA

LEHENENGOA.- Zumaiako Udalak esleituta ditu Zumaiako portuko jabari publikoaren eremuan zerbitzuak emateko eskumenak, dagozkion emakiden eta administrazio-baimenen arabera.

BIGARRENA.- Itsasertzaren Garapeneko, Portuen eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren 2025eko otsailaren 7ko Erabakiaren bidez, Zumaiako Udalarai baimena eman zitzaion portuko jabari publikoa okupatzeko eta "Sareunea" kaiko aparkalekua kudeatzeko.

PROPUESTA DE ACUERDO

PRIMERO.- El Ayuntamiento de Zumaia tiene atribuidas las competencias para la prestación de servicios en el ámbito del dominio público portuario de Zumaia, conforme a las correspondientes concesiones y autorizaciones administrativas.

SEGUNDO.- Mediante acuerdo de 7 de febrero de 2025 de la Dirección de Desarrollo Litoral, Puertos, y Asuntos Marítimos, se autorizó al Ayuntamiento de Zumaia la ocupación del dominio público portuario y la gestión del aparcamiento del muelle "Sareunea".



HIRUGARRENA.- Zumaiako Udalak bidaiarien ibai-garraioko zerbitzua esleitu du Txomin Agirre kaiaren eta Kirol Portuko zelaigunearen artean, eta Txomin Agirre kaiaren eta Santiago hondartzaren artean.

LAUGARRENA.- 2012ko otsailaren 20an, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta hainbat administrazio publikok lankidetzeta-protokolo orokorra sinatu zuten Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifak integratzeko sistema ezartzeko. Sistema hori 2013ko martxoaren 4an jarri zen martxan, MUGI izenarekin.

BOSGARRENA.- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak (aurrerantzean, GGLA) MUGI sistema kudeatzen duen partzuergo da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta lurralde historikoko hamabost udalek osatzen dute. Zumaiako Udala ez da partzuergo horretako kide.

SEIGARRENA.- Zumaiako portuko ibai-garraioko zerbitzua MUGI tarifa-sisteman integratzeko, GGLAK eta Zumaiako Udalak Zumaiako portuan Itsas Bideko Bidaiarien Garraio Erregularreko Zerbitzuan Tarifak Integratzeko Sistema ezartzeko Hitzarmenaren testua negoziatu dute, l. eranskinarekin batera. Bertan, beharrezko inbertsioak, tarifen araubidea eta MUGI integrazioagatik likidazio- eta konpentsazio-mekanismoa arautzen dira.

ZAZPIGARRENA.- Gipuzkoako Garraio Agintaritzak Hitzarmenaren testua onartu zuen 2026ko apirilaren 1ean egindako Batzar Nagusian.

ZORTZIGARRENA.- Udaleko zerbitzu tekniko eta juridikoek hitzarmenaren eta l. eranskinaren testuaren aldeko txostena eman dute.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Toki Araubidearen Oinarririk

TERCERO.- El Ayuntamiento de Zumaia ha adjudicado el servicio de transporte fluvial de pasajeros entre el muelle Txomin Agirre y la explanada del puerto Deportivo, y entre el muelle Txomin Agirre y la playa de Santiago.

CUARTO.- Con fecha 20 de febrero de 2012, la Diputación Foral de Gipuzkoa y diversas administraciones públicas suscribieron el Protocolo general de colaboración para la implantación del Sistema de Integración Tarifaria en el transporte público colectivo del Territorio Histórico de Gipuzkoa, sistema que entró en funcionamiento el 4 de marzo de 2013 bajo la denominación MUGI.

QUINTO.- La Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa (en adelante, ATTG) es el Consorcio gestor del sistema MUGI, integrado por la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Comunidad Autónoma de Euskadi y quince ayuntamientos del Territorio Histórico. El Ayuntamiento de Zumaia no forma parte de dicho Consorcio.

SEXTO.- Con objeto de integrar el servicio de transporte fluvial del puerto de Zumaia en el sistema tarifario MUGI, la ATTG y el Ayuntamiento de Zumaia han negociado el texto del Convenio para la implantación del Sistema de Integración Tarifaria en el Servicio de Transporte Regular de Viajeros por Vía Marítima en el puerto de Zumaia, junto con su Anexo I, que regula las inversiones necesarias, el régimen tarifario y el mecanismo de liquidación y compensación por integración MUGI.

SEPTIMO.- La aprobación del texto del Convenio por parte de la ATTG fue adoptada por su Asamblea General en sesión celebrada el 1 de abril de 2026.

OCTAVO.- Los servicios técnicos y jurídicos del ayuntamiento han emitido informe favorable sobre el texto del Convenio y del Anexo I

FUNDAMENTOS DE DERECHO

PRIMERO.- El artículo 57 de la Ley 7/1985, de



arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua aurreikusten duenez, toki-erakundeek lankidetzahitzarmenak sinatu ahal izango dituzte beste administrazio publiko batzuekin, kudeaketa arrunteko eskumenak modu koordinatuan kudeatzeko.

BIGARRENA.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2 c) artikulua administrazio publikoen artean interes komunekin helburuak lortzeko hitzarmenak izenpetzeko ahalmena ematen du, eta gutxienezko edukia, argitalpenaren eta erregistroaren baldintzak ezartzen ditu.

HIRUGARRENA.- 7/1985 Legearen 22.2 e) artikulua Udalbatzari esleitzen dio beste administrazio publiko batzuekiko lankidetzarako administrazio-hitzarmenak onartzeko eskumena. Era berean, lege horren 21.1 b) artikulua alkateari esleitzen dio Udalaren ordezkari izateko erabakiak sinatzeko.

LAUGARRENA.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta bere xedea (udal garraio zerbitzua MUGI tarifa sisteman sartzea) zuzenean lotuta dago udal eskumeneko zerbitzu publiko bat ematearekin, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio arloko araudia aplikatuz.

HITZARMENAREN EDUKIA ETA I. ERANSKINA

Zatiak: Zumaiako Udala eta ATGG

Xedea: Zumaiako portuko ibai-garraioko zerbitzuaren tarifak MUGI tarifa-sisteman sartzea

Tarifa aplikagarria: MUGI Urbano3 (noizbehinkakoa: 1,45 €; txartela: 0,15 €-tik 0,96 €-ra, tartearen arabera)

Inbertsioa ekipoetan: Gipuzkoako Foru Aldundia: 3 terminal balioztatzaile eramangarri eta software garapena

2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, prevé la posibilidad de que las entidades locales suscriban convenios de colaboración con otras administraciones públicas para la gestión coordinada de competencias de gestión ordinaria.

SEGUNDO.- El artículo 47.2 c) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, habilita la suscripción de convenios entre administraciones públicas para el logro de fines de interés común, estableciendo los requisitos de contenido mínimo, publicación y registro.

TERCERO.- El artículo 22.2 e) de la Ley 7/1985 atribuye al Pleno del Ayuntamiento la competencia para la aprobación de convenios administrativos de cooperación con otras administraciones públicas. Asimismo, el artículo 21.1 b) de la misma Ley atribuye al Alcalde la representación del Ayuntamiento para la firma de los acuerdos así adoptados.

CUARTO.- El presente convenio tiene carácter administrativo y su objeto (la integración del servicio de transporte municipal en el sistema tarifario MUGI) está directamente vinculado a la prestación de un servicio público de competencia municipal, resultando de aplicación la normativa sectorial de transporte de la Comunidad Autónoma del País Vasco y del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

CONTENIDO DEL CONVENIO Y ANEXO I

Partes: Ayuntamiento de Zumaia y ATGG

Objeto: integración de las tarifas del servicio de transporte fluvial del puerto de Zumaia en el sistema tarifario MUGI

Tarifa aplicable: MUGI Urbano3 (ocasional: 1,45 €; tarjeta: desde 0,15 € hasta 0,96 € según tramo)

Inversión en equipos: Diputación Foral de Gipuzkoa: 3 terminales validadoras portátiles y desarrollo software



Hileko likidazioa: % 40ko aurrerakina (27. eguna baino lehen) + behin betiko likidazioa (hurrengo hilaren 15a baino lehen)

Urteko konpentsazioa: Neutraltasun ekonomikoaren bermea: batez besteko diru-sarreraren arabera formula/2025eko bidaiaria x urteko bidaiariak x LGS faktorea

Indarraldia: 4 urte ekipoak martxan jartzen direnetik (baldintza etengarria)

Luzapena: 4 urte gehiago aho batez

Jarraipen-organoa: Batzorde paritarioa (2 kide alde bakoitzeko)

Liquidación mensual: Anticipo del 40% (antes del día 27) + liquidación definitiva (antes del 15 del mes siguiente)

Compensación anual: Garantía de neutralidad económica: fórmula según ingreso medio/viajero 2025 x viajeros año X x factor SMI

Vigencia: 4 años desde puesta en marcha de los equipos (condición suspensiva)

Prórroga: 4 años adicionales por acuerdo unánime

Organo de seguimiento: Comisión paritaria (2 miembros por cada parte)

XEDAPEN-ZATIA

PARTE DISPOSITIVA

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta f) artikuluetan ezarritakoaren arabera, Udalbatzaren Osoko Bilkurari dagokio onarpena ematea. Horrenbestez, Udalbatzaren Osoko Bilkurari honako erabaki hau hartzea proposatzen zaio:

Visto que la aprobación corresponde al Pleno de la Corporación conforme a lo establecido en el artículo 22.2.d) y f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, se propone al Pleno de la Corporación la adopción del siguiente:

IRIZPENA

DICTAMEN

Ondorioz, Lurralde Batzordeak, 2026ko apirilaren... (e) an, honako bozketa hau egin ondoren:

En consecuencia la Comisión Lurraldea, con fecha .. de abril de 2026, tras la siguiente votación:

Alde:

A favor:

Aurka:

En contra:

Irizpen hau **BAIESTE**A edo **EZESTE**A erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Korporazioen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 135.3 artikuluekin bat etorritik, eta, hala badagokio, Udalbatzaren Osoko Bilkurari aurkeztea, bertan dauden kideen gehiengo soiluz erabaki dezan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.1 artikuluari jarraiki. Honako PROPOSAMENA:

Acuerda **ESTIMAR** o **DESESTIMAR** el presente dictamen de conformidad con el artículo 135.3 del Reglamento de Organización y Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y someterlo si procede a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo por mayoría simple de sus miembros presentes según establece el art. 47.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, la siguiente PROPUESTA:



LEHENENGOA.- Zumaiako portuan Bidaia-arien Itsas Bidezko Garraio Erregularreko Zerbitzuan Tarifak Integrazteko Sistema ezartzeko Hitzarmenaren testua onartzea. Hitzarmen hori Zumaiako Udalak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak (GGLA) sinatu dute, espedientean dagoen dokumentuan jasotako baldintzetan. Hitzarmen hori erabaki honen parte da.

BIGARRENA.- Hitzarmen horren I. ERANSKINA onartzea, MUGI Zumaiako portuko bidaiarien itsas garraio-ko zerbitzuan, aplikatu beharreko tarifa-erregimenean (MUGI Urbano 3) eta MUGI integrazteko likidazio- eta konpentsazio-mekanismoan integrazteko beharrezkoak diren inbertsioei buruzkoa, espedientean dagoen dokumentuan jasotako baldintzetan.

HIRUGARRENA.- Zumaiako Udaleko alkate Iñaki Ostolaza Esnal jaunari baimena ematea Udalbatza honen izenean eta ordezkari-za hitzarmena eta I. eranskina sinatu ditzan, bai eta hitzarmena formalizatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren agiri osagarri guztiak ere.

LAUGARRENA.- Erabaki hau, hitzarmenaren testu osoa eta I. eranskina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratzeko agintzea.

BOSGARRENA.- Zumaiako Udalak Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean izango dituen bi ordezkariak izendatzea. Batzorde hori hitzarmena indarrean sartzen denetik hilabeteko epean eratu behar-ko da. Hauek dira izendatutako ordezkariak:

- 1.-
- 2.-

SEIGARRENA.- Erabaki hau Gipuzkoako

PRIMERO.- Aprobar el texto del Convenio para la implantación del Sistema de Integración Tarifaria en el Servicio de Transporte Regular de Viajeros por Vía Marítima en el puerto de Zumaia, suscrito entre el Ayuntamiento de Zumaia y la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa (ATG), en los términos recogidos en el documento que obra en el expediente y que se incorpora como parte integrante del presente acuerdo.

SEGUNDO.- Aprobar el ANEXO I del citado Convenio, relativo a las inversiones necesarias para la integración MUGI en el servicio de transporte marítimo de viajeros del puerto de Zumaia, al régimen tarifario aplicable (MUGI Urbano 3) y al mecanismo de liquidación y compensación por integración MUGI, en los términos recogidos en el documento que obra en el expediente.

TERCERO.- Autorizar al Alcalde del Ayuntamiento de Zumaia, D. Iñaki Ostolaza Esnal, para que en nombre y representación del esta Corporación proceda a la firma del Convenio y de su Anexo I, así como de cuantos documentos complementarios sean necesarios para su formalización y ejecución.

CUARTO.- Ordenar la publicación del presente acuerdo y del texto íntegro del Convenio y su Anexo I en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (BOG).

QUINTO.- Designar a los dos representantes del Ayuntamiento de Zumaia en la Comisión de Seguimiento del Convenio, que deberá constituirse en el plazo de un mes desde la entrega en vigor del mismo. Los representantes designados son:

- 1.-
- 2.-

SEXTO.- Notificar el presente acuerdo a la



Garraioaren
jakinaraztea.

Lurralde

Agintaritzari

Autoridad Territorial del Transporte de
Gipuzkoa.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Oain aipatu dizueten bezela, ingo degu aldaketa bat. Proposamen bezela ekarriko dut 3.2 puntua gai ordenian sartu ez zalako bere momentuan.

Beraz, lehendabizi, proposamen bezela landu ahal izateko bozkatuko dugu onartzen dugun edo ez:

Aldeko botoak: 16 (9 EH Bildu, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Dakizuen bezela, hemen ibili gea garraio agintariarekin buelta asko ematen, azken finean beaiek proposatzen ziguten bi itsasontzien jun etorria MUGI sisteman sartzea.

Ba bueno, ondo datorkigu guri, baino bueno, ba beaien nahia izanda, ba esan gendun ba ados, martxan ipiniko gendula, baino zailtasunak geneuzkala lotzeko beaien tarifa guriakin. Zeren azken finean gure ordenantza fiskaletan prezio batzuk ipinita zeuden eta beaien sisteman integratzeko atxikitu bihar gea beaiek zeuzkaten hiru tarifatako batea. Ta bueno, asko eztabaidatu gabe, azkenian momentu batian ya aileatu ginan hirugarren tarifara adosteko.

Lehendabizi adostu gendunian hitzarmen hau egin gendun, baino lehendabizi garraio zuzendaritzako batzordeak edo batzarrak onartu behar zun eta behin onartu zuenian, hau egin ahal izan dugu ta orduan beaiek onartu zuten. Oain guk onartu behar dugu Osoko Bilkura bezela integratzen geala tarifa horretan eta bi itsasontzi hauek MUGI sistema erabili ahal izateko, ba bueno, onartzen dugula garraio zuzendari horretan sartzia. Eta hoixe da azalpena, ez daka askoz gehio.

Aldeko botoak: 16 (9 EH Bildu, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0



ERABAKIA:

ZUMAIAKO PORTUAN BIDAIARIEN ITSAS BIDEZKO GARRAIO ERREGULARREKO ZERBITZUAN TARIFAK INTEGRATZEKO SISTEMA EZARTZEKO HITZARMENAREN TESTUA ONARTZEA

2.3.- 2026KO ORDENANTZA FISKALEN 2. ALDAKETA BEHIN BEHINEKOZ ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2026KO APIRILAREN 22KO ANTOLAKETA BATZORDEAREN (OGASUNA) IRIZPENA, 2026. URTERAKO ORDENANTZA FISKALEN 2.ALDAKETA ONARTZEKO (TXALUPA ZERBITZUA MUGI SISTEMAN SARTZEA)

AURREKARIAK

2026ko apirilaren 22ko Antolaketa Batzordean (Ogasuna) 2026. Urterako ordenantza fiskalen 2.aldaketaren proposamena aurkezten da:

2026ko otsailean proposamena jaso da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzatik (GGLA) bidaiaren garraio zerbitzua (txalupa zerbitzua) Mugi sisteman sartzeko.

Jarraian, 2026ko ordenantza fiskalen 2.aldaketaren behin betiko onespenerako irizpenaren bozketa egin da.

Irizpen honi 2026ko Ordenantza Fiskalen 2.aldaketaren proposamena eransten zaio.

IRIZPENA

Ondorioz, 2026ko apirilaren 22an, Antolaketa Batzordeak (ogasuna) aldeko/ez aldeko irizpena jaso du hurrengo botoekin:

Aldeko botoak: 6 (2 EAJ; 2 EHBILDU; 1 PSE)

Aurkako botoak: 0.

Abstentzioa: 0.

Honako PROPOSAMEN hau udalbatzako Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea/ez jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Hasierako onarpena ematea 2026.urterako Ordenantza Fiskalen 2.aldaketari, eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. Artikuluaren arabera, udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan



hedapenik handienetakoa den egunkari batetan argitaratu eta GAOn argitaratu hogeita hamar egun balioduneko epean zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta erreklamaziorik aurkezten ez bada behin behinekkoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaian, 2026ko apirilaren 22an

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Honen ondoren datorrena da ba markatuta zegoen irizpidea. Eta bueno eztaikit, Unai, besterik gabe ez? Ze azken finean iten duguna da hitzarmenean adostutako tarifa ordenantza fiskalen aldaketa baten bidez txertatzia ordenantza fiskaletan, kobratu ahal izateko. Hemen bai azpimarratu nahi detela zerbitzu hau martxan ipintzeko datafonoak bihar diala, MUGIko datafonoak. Eta MUGIko datafonoak ekarriko dizkigula Aldundiak edo Garraio Zuzendaritzak. Eta haiek dauzkagunian, ba ipiniko dugu, anuntziatuko dugu indarrarian daudela eta noiztik indarrarian sartzen dian. Beraz, ofizialki indarrarian jarri daiteke, baino datafona ez daukagunez, ezin daitezke erabili. Ulertzen da, ez? Dauzkagunian, abixatuko dugu. Beraz, hori da ordenantza fiskalen aldaketa.

Aldeko botoak: 16 (9 EH Bildu, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

ORDENANTZA FISKALEN 2. ALDAKETA BEHIN BEHINEKOZ ONARTZEA.



3.- PROPOSAMENAK

3.1.- BRANKA ERAIKINAREN LAGAPENA BEHIN BEHINEKOZ ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Kasu hontan aipatu zan batzordian eta proposamen bezela ekarri behar izan dugu. Proposamena lantzeko aldeko bozkek?

Aldeko botoak: 16 (9 EH Bildu, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

**LURRALDE BATZORDEAREN IRIZPENA
2026KO APIRILAREN 22KO LURRALDEA
BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA,
BRANKA ERAIKINAREN LAGAPENA.**

LEHENENGOA.- Zumaia Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero sinatu dituzte lankidetzeta-hitzarmenak. Hitzarmen horien arabera, "2.2.1.1 Mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroa" zerbitzuaren hornidura, nahiz eta Aldundiaren eskumeneko zerbitzua izan, Zumaia Udalak egingo zuen Zumaia "Branka" izeneko eraikinean, udal-jabetzakoa, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, zerbitzua finantzatu beharko zuen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak "2.2.1.1 Mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroa" zerbitzuaren hornikuntza bere gain hartzeko eta gauzatzeko borondate irmoa adierazi du (erregistro zenb. 2026/2325), Gizarte Zerbitzuei buruzko, 12/2008 Legeari eta 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoari jarraiki Aldundiaren eskumen propioa baita.

Hori ikusita, Alkatetzak 2026ko urtarrilaren 26an emandako 2026/95 ebazpenaren bidez erabaki zen, aipatutako eskumena gauzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiari doan lagatzea erabilera, berrehun eta hirurogeita zazpi metro koadroko eta lauogeita zazpi zentimetro koadroko lokal bat banantzea/segregatzea 6736 jatorrizko

**DICTAMEN DE LA COMISIÓN LURRALDEA
DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA
TERRITORIO, 22 ABRIL 2026, CESIÓN EDIFICIO
BRANKA.**

PRIMERO.- El Ayuntamiento de Zumaia y la Diputación Foral de Gipuzkoa han venido suscribiendo anualmente Convenios de colaboración por el que se acordaba que la provisión de los servicios de "2.2.1.1 Centro de día para personas mayores en situación de dependencia", aunque sea un servicio de competencia de la Diputación, la realizaría el Ayuntamiento en el edificio denominado "Branka" de Zumaia de propiedad municipal, mientras que la Diputación Foral de Gipuzkoa se obligaba a la financiación del sostenimiento del servicio.

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha manifestado la firme voluntad de asumir y ejecutar la provisión de los servicios de "2.2.1.1 Centro de día para personas mayores en situación de dependencia" (nº registro: 2026/2325) que constituye una competencia foral atribuida como propia por la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales y el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

A la vista de ello mediante resolución de Alcaldía nº 2026/95 de 26 de enero de 2026 se acordó, con el fin de materializar la cesión gratuita de su uso a la Diputación Foral de Gipuzkoa con vistas al ejercicio efectivo de la competencia citada, la segregación de un local de doscientos sesenta y siete metros cuadrados y



finkatik, Zumaia "Branka" eraikina osatzen duena.

Hona hemen Azpeitiko Jabetza Erregistroan 11649 zk.ko finka gisa inskribatuta dagoen lokalaren segregazioa:

HIRIKOA: Zumaia Arau Subsidiarioetako Hiru Sektoreko Birpartzelazioaren ondoriozko partzelen zerrendan D-III erreferentzia duen finkatik banandutako hiri-finka. Berrehun eta hirurogeita zazpi metro koadroko eta laurogeita zazpi zentimetro koadroko azalera du, ekipamendu publikoko erabilera orokorrekin eta gizarte ekipamenduko erabilera orokorrekin (eguneko zentroa). Oinezkoentzako bi sarbide ditu, lehena banandutako finkaren sarrera komunetik. Bigarrena Arranaitz kaletik.

Mugak: Iparraldean, Victoriano Arrate kaleko 5. atariaren ondoko garajetik aparte dauden oinezkoentzako sarbideak Hegoaldea, Arranaitz Kalea. ibilgailuak sotoko solairura sartzeko arrapala. Ekialdean: garajeetara sartzeko arrapala. Titularra: Zumaia Udala, finka osoaren jabetza publikoa.

Toki-erakundeei aplikagarri zaien araubide juridiko-ondarekoaren arabera, ondasun higiezinak ezin izango zaizkie doan laga erakunde edo instituzio publikoei, udal-mugarteko biztanleen mesederako izan daitezten, ezta irabazi-asmorik gabeko interes publikoko erakunde pribatuei ere.

Aldaketa demanial subjektiboaren bidez ondasun edo eskubide bat Udal Ondaretik desafektatzen da, eta,aldi berean, beste Administrazio edo departamentu baten beste erabilera orokor, xede edo zerbitzu publiko bati eragiten zaio.

Proposatzen den lagapenak ez dakar ondasun higiezinaren xedea aldatzea edo zerbitzu publikoaren helburuari eragitea; beraz, ez da jabari publikoko izaera galtzen. Lagapen demanial finalista da, hau da,

ochenta y siete centímetros cuadrados de la finca matriz 6736 que conforma el edificio "Branka" de Zumaia.

La segregación del local inscrita en el Registro de la Propiedad de Azpeitia como finca nº 11649 obedece a la siguiente descripción:

URBANA: Finca urbana segregada de la señalada con la referencia D-III de la relación de parcelas resultantes de la Reparcelación del Sector Tres de las Normas Subsidiarias de Zumaia. Tiene una superficie de doscientos sesenta y siete metro cuadrados y ochenta y siete centímetro cuadrados, con un uso global de equipamiento público y destino de equipamiento social (Centro de día). Dispone de dos accesos peatonales, el primero por entrada común de la finca de la que se segrega. El segundo por Arranaitz kalea.

Linda: Norte, accesos peatonales independientes al garaje junto al portal nº5 de Victoriano Arrate Kalea Sur, Arranaitz Kalea. rampa de acceso de vehículos a la planta sótano. Este: rampa de acceso a garajes. Oeste, soportales a Victoriano Arrate Kalea, Titular: Ayuntamiento de Zumaia, dueño de la total finca con carácter de dominio público.

De acuerdo con el régimen jurídico-patrimonial aplicable a las entidades locales los bienes inmuebles no podrán cederse gratuitamente sino a Entidades o Instituciones Públicas para fines que redunden en beneficio de los habitantes del término municipal, así como a las Instituciones Privadas de interés público sin ánimo de lucro.

La mutación demanial subjetiva es el acto en virtud del cual se efectúa la desafectación de un bien o derecho del Patrimonio Municipal, con simultánea afectación a otro uso general, fin o servicio público de otra Administración o departamento.

La cesión propuesta no supone la alteración del destino o de la afección al fin de servicio público del bien inmueble, por lo que no se pierde el carácter demanial. Es una cesión demanial finalista,



foru-eskumenekoa den GZESren zorroan sartutako zerbitzu bat betetzeko erabilera eskualdatzea ("2.2.1.1 Mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroa").

Gipuzkoako Foru Aldundiari lagatako ondasunak ez badira lagapen-erabakian adierazitako epean aurreikusitako helbururako erabiltzen, edo gerora hala izateari uzten badiote, lagapena ebatzitzat joko da, eta Zumaiako Udalarari itzuliko zaizkio. Udalak eskubidea izango du lagatako ondasunek jasandako kalteen balioa erakunde onuradunetik jasotzeko, perituen tasazioa egin ondoren.

Lagapen-erabakian besterik xedatzen ez bada, emate-erabakian ezarritako helburuak gehienez ere bost urteko epean bete beharko dira, eta hurrengo hogeita hamar urteetan mantendu beharko da haien xedea. Lagatako ondasunak erakunde lagatzailearen (Zumaiako Udala) ondareari itzuliko zaizkio, hala badagokio, bere ondasun eta akzesio guztiekin.

Espedientea hasita eta araudi aplikagarrian ezarritako tramitazioa eginda, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskaera, txosten juridikoa, txosten teknikoa eta inbentarioaren ziurtagiria sartuta

BIGARRENA.- Oinarri juridikoa

Akordio-proposamen hau honako arau-xedapen hauetan oinarritzen da:

1.- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 71.4 artikulua: herri-jabariko ondasun eta eskubideak beste administrazio publiko batzuei eragiteko aukera aurreikusten du, bere eskumeneko erabilera edo zerbitzu publiko jakin baterako erabiltzeko, eragiketa horrek ondasunen titulartasuna eta herri-jabariko izaera aldatu gabe.

2.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua eta horrekin bat datozenak: Osoko Bilkurari esleitzen diote ondasunak xedatzeari buruzko erabakiak hartzeko

es decir, la transmisión del uso para el cumplimiento de un servicio incluido en la cartera del SVSS de competencia foral ("2.2.1.1 Centro de día para personas mayores en situación de dependencia").

Si los bienes cedidos a la Diputación Foral de Gipuzkoa no fuesen destinados al uso previsto dentro del plazo señalado en el acuerdo de cesión o dejaran de serlo posteriormente se considerará resuelta la cesión y revertirán aquellos al Ayuntamiento de Zumaiako, la cual tendrá derecho a percibir de la entidad beneficiaria, previa tasación pericial, el valor de los detrimentos experimentados por los bienes cedidos.

Si en el Acuerdo de cesión no se estipula otra cosa, se entenderá que los fines para los cuales se hubieran otorgado deberán cumplirse en el plazo máximo de cinco años, debiendo mantenerse su destino durante los treinta años siguientes. Los bienes cedidos revertirán, en su caso, al patrimonio de la Entidad cedente (Ayuntamiento de Zumaiako) con todas sus pertenencias y accesiones.

Iniciado el expediente y realizada la tramitación establecida en la normativa aplicable, con la incorporación de la solicitud de la Diputación Foral de Gipuzkoa, informe jurídico, informe técnico y certificado del inventario,

SEGUNDO.- Fundamento Jurídico

La presente propuesta de acuerdo se fundamenta en las siguientes disposiciones normativas:

1.- Artículo 71.4 de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas: prevé la posibilidad de afectar bienes y derechos demaniales a otras administraciones públicas para destinarlos a un determinado uso o servicio público de su competencia, sin que dicha operación altere la titularidad de los bienes ni su carácter demanial.

2.- Artículo 22.2 y concordantes de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local: atribuyen al Pleno la competencia para adoptar los acuerdos relativos a la disposición de bienes.



eskumena.

3.- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena, osagarri gisa aplikatzekoa den guztian.

4.- 8/1996 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondareari buruzkoa.

3.- Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, en todo lo que resulte de aplicación supletoria.

4.- Norma Foral 8/1996 de Patrimonio del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

HIRUGARRENA.- Proposatzen den herri-jabariako aldaketa subjektiboak honako funtsezko baldintza hauek bete beharko ditu:

1.- Xedea: "Branka" izeneko ondasun higiezinaren (bereizitako lokala) erabilera lagatzen da (Azpeitiko Jabetza Erregistroko 11649 zenbakiko finka).

2.- Titulartasuna: Zumaiako Udalak uneoro gordetzen du ondasunaren titulartasun osoa, eta lagapen honek ez dakar jabariaren inolako eskualdaketarik. Higiezinaren izaera demaniala aldatu gabe dago.

3.- Destinoa: lagatako ondasuna "2.2.1.1 Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentrorra" baino ez da bideratuko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko zerbitzu publikoa baita. Destinoa aldatzeko, udal lagatzailearen berariazko baimena beharko da.

4.- Epea: erabilera-lagapen honek 15 urteko iraupena izango du, Gipuzkoako Foru Aldundiak dagokion zerbitzu-kontratua esleitzen duenetik kontatzen hasita. Ezarritako epea amaitzen denean, alderdiek, berariazko akordio baten bidez, lagapena beste 15 urtez luzatu ahal izango dute, gehienez ere. Ezarritako epeak igarotakoan, ondasuna automatikoki itzuliko zaio udalari bere ondasun eta akzesio guztiekin, eta Aldundiak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

5.- Doakotasuna: lagapena doan egiten da, Zumaiako Udalaren aldeko kontraprestazio ekonomikorik gabe, lagapena justifikatzen duen interes publikoa kontuan hartuta.

6.- Kontserbazioa eta mantentzea: kontserbazio, mantentze eta, hala

TERCERO.- La mutación demanial subjetiva que se propone se somete a las siguientes condiciones esenciales.

1.- Objeto: se cede el uso del bien inmueble (local segregado) denominado "Branka" (finca nº 11649 del Registro de la Propiedad de Azpeitia)

2.- Titularidad: el Ayuntamiento de Zumaia conserva en todo momento la plena titularidad del bien, sin que la presente cesión suponga transmisión alguna del dominio. El carácter demanial del inmueble permanece inalterado.

3.- Destino: el bien cedido deberá destinarse exclusivamente a "2.2.1.1 Centro de día para personas mayores en situación de dependencia", servicio público de competencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Cualquier modificación del destino requerirá autorización expresa del Ayuntamiento cedente.

4.- Plazo: la presente cesión de uso tendrá una duración de 15 años, contados desde la adjudicación del contrato de servicios correspondiente por la Diputación Foral de Gipuzkoa. Llegado el vencimiento del plazo establecido las partes mediante acuerdo expreso podrán prorrogar la cesión por otros 15 años como máximo. Transcurridos los plazos establecidos, el bien revertirá automáticamente al Ayuntamiento con todas sus pertenencias y accesiones, sin derecho a indemnización por parte de la Diputación.

5.- Gratuidad: la cesión se realiza a título gratuito, sin contraprestación económica alguna a favor del Ayuntamiento de Zumaia, en atención al interés público que justifica la cesión.

6.- Conservación y mantenimiento: los gastos ordinarios de conservación,



badagokio, hobekuntza gastu arruntak Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko ditu lagapena indarrean dagoen bitartean.

7.- Itzultzea: ondasuna Zumaiako Udalaren ondarrera itzuliko da honako kasu hauetan: a) hitzartutako epea igarotzeagatik; b) eman zenetik ezarritako epeetan aurreikusitako erabilerarako ez erabiltzeagatik; c) lagapena justifikatu zuen zerbitzu publikorako erabiltzeari uzteagatik; d) akuredoan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik; e) alderdien adostasunez.

8.- Formalizazioa: lagapena dagokion entrega-aktaren bidez formalizatuko da, eta akta hori Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak sinatuko dute.

LAUGARRENA.- Espedientea hasi eta aplikatu beharreko araudian ezarritako izapideak egin ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskaera, txosten juridikoa, txosten teknikoa eta inbentarioaren ziurtagiria sartu dira.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.) artikuluan ezarritakoaren arabera, Udalbatzaren Osoko Bilkurari dagokio onarpena ematea. Horrenbestez, Udalbatzaren Osoko Bilkurari honako erabaki hau hartzea proposatzen zaio:

IRIZPENA

Ondorioz, 2026ko apirilaren ..ko Lurraldea Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde:
Kontra:

Aldeko/kontrako irizpena eman du azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako , Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki

mantenimiento y, en su caso, las mejoras que se acuerden expresamente, correrán a cargo de la Diputación Foral de Gipuzkoa durante la vigencia de la cesión.

7.- Reversión: el bien revertirá al patrimonio del Ayuntamiento de Zumaia en los siguientes supuestos: a) por transcurso del plazo pactado; b) por no destinarlo al uso previsto en los plazos establecidos desde la entrega; c) por dejar de destinarlo al servicio público que justificó la cesión; d) por incumplimiento de las condiciones establecidas en el acuerdo; e) por mutuo acuerdo de las partes

8.- Formalización: la cesión se formalizará mediante el acta de entrega correspondiente, que será suscrita por los representantes del Ayuntamiento y de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

CUARTO.- Iniciado el expediente y realizada la tramitación establecida en la normativa aplicable, con la incorporación de la solicitud de la Diputación Foral de Gipuzkoa, informe jurídico, informe técnico y certificado del inventario,

Visto que la aprobación corresponde al Pleno de la Corporación conforme a lo establecido en el artículo 22.2.) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, se propone al Pleno de la Corporación la adopción del siguiente

DICTAMEN

En consecuencia la Comisión Lurraldea, con fecha .. de abril de 2026, tras la siguiente votación:

A favor:
En contra:

Acuerda **ESTIMAR o DESESTIMAR** el presente dictamen de conformidad con el artículo 135.3 del Reglamento de Organización y Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y someterlo si procede a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá



du, Toki araubidearen Oinariak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluan araututakoari jarraituz, eta horren arabera, erabakia udalbatzako legezko zinegotzien gehiengo osoarekin hartu beharko da; PROPOSAMENA

LEHENENGOA. Hasieran onartzea Zumaian dagoen "Branka" (Azpeitiko Jabetza Erregistroko 11649 finka) ondasun higiezinaren erabilera Gipuzkoako Foru Aldundiari lagatzea dakarren jabari subjektiboko aldaketa, "2.2.1.1 Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroa" jarduerara bakarrik bideratzeko. Aldaketak ez du ondasunen titulartasuna aldatuko, ezta haien herri-jabariko izaera ere.

BIGARRENA. Hamabost (15) urteko lagapen-epea finkatzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak lagatako ondasun higiezinaren adinekoen eguneko zentroaren zerbitzua emateko kontratua esleitzen duenetik kontaktzen hasita. Aldundiak gehienez hamar (10) egun balioduneko epean jakinaraziko dio Zumaia Udalari esleipendata, eta kontratazio-organoaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da. Hamabost urteko epea igarotakoan, ondasuna Udalari itzuliko zaio automatikoki, bere ondasun eta akzesio guztiekin, eta Aldundiak ez du demandarik ez jartzeko eskubiderik izango.

HIRUGARRENA. Lagapena egiten zaion Gipuzkoako Foru Aldundiari akordioa bidaltzea (jabari publikoko aldaketa subjektiboa), harekin ados dagoela adieraz dezan.

LAUGARRENA. Adostasuna jaso ondoren, akordioa behin betikotzat joko da, eta, eraginkorra izan dadin, bi administrazioek sinatuko duten akta idatzi beharko da.

BOSGARRENA. Alkateari ahalmena ematea higiezina entregatzeko akta sinatzeko, bai eta lagapena formalizatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko ere, hitzarmen osagarriak eta espediente honekin zerikusia duten gainerako dokumentuak barne.

adoptar el acuerdo con el quorum de la mayoría absoluta del número legal de sus miembros establecido en el art. 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, la siguiente PROPUESTA:

PRIMERO. Aprobar inicialmente la mutación demanial subjetiva consistente en la cesión del uso del bien inmueble "Branka" (finca 11649 del Registro de la Propiedad de Azpeitia) sito en Zumaia, a favor de la Diputación Foral de Gipuzkoa, para destinarlo exclusivamente a "2.2.1.1 Centro de día para personas mayores en situación de dependencia". La mutación no alterará la titularidad de los bienes ni su carácter demanial, conservando el Ayuntamiento de Zumaia todas las potestades propias del dominio público sobre el bien cedido.

SEGUNDO. Fijar un plazo de cesión de quince (15) años, contados desde la fecha en que la Diputación Foral de Gipuzkoa adjudique el contrato para la prestación del servicio del centro de día de personas mayores en el bien inmueble cedido. La Diputación comunicará al Ayuntamiento de Zumaia, en el plazo máximo de diez (10) días hábiles, la fecha de adjudicación, que quedará acreditada mediante certificación del órgano de contratación. Transcurrido el plazo de quince años, el bien revertirá automáticamente al Ayuntamiento con todas sus pertenencias y accesiones, sin derecho a indemnización por parte de la Diputación.

TERCERO. Remitir el acuerdo a la Diputación Foral de Gipuzkoa a favor de la cual se realiza la cesión (mutación demanial subjetiva) para que manifieste su conformidad con la misma.

CUARTO. Recibida la conformidad quedará el acuerdo elevado a definitiva y para su efectividad se requerirá la redacción de un acta que será suscrita por ambas administraciones.

QUINTO. Facultar al Alcalde para suscribir el acta de entrega del inmueble, así como cuantos documentos sean necesarios para la formalización de la cesión, incluyendo convenios complementarios y demás documentos relacionados con este



expediente.

Lurraldea Batzordearen lehendakaria

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Gorka aipatuko diguzu pixkat zer egin dugun brankan asunto honekin? Hola, de manera somera.

GORKA URGOITI AGIRRE:

Batetik Aldundiaren eskumena nolabait, hau da, legez gauzatu eiten da edo Aldundiak hartu egiten du bere eskumen hori. Eta hemen lagapen horretan erabiltzen dan figura da aldaketa subjektiboa, ze eraikin horrek daukan erabilera publiko hori mantendu egiten da, baina aldatzen dana da erabileraren titulartasuna eta orduan, bueno, legean aurreikusten dan figura hori erabiltzen da lagapen hori gauzatzeko. Besterik ez.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Ba bozkatu ingo deu.

Aldeko botoak: 16 (9 EH Bildu, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

BRANKA ERAIKINAREN LAGAPENA BEHIN BEHINEKOZ ONARTZEA.

4.- UDALBATZAKO ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

4.1.- UDALAREN 2026KO 2. ETA 3. KREDITU ALDAKETAK JAKINARAZTEA.

KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

| Partida | Izena | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|---------------------------|-----------------|--------------------|------------|--------------------|
| 1 1000.500.929.00.01 2026 | KREDITU GLOBALA | 56.038,06 | 5.445,00 | 50.593,06 |
| | | | | |



| | | | |
|----------------|------------------|-----------------|------------------|
| GUZTIRA | 56.038,06 | 5.445,00 | 50.593,06 |
|----------------|------------------|-----------------|------------------|

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

| Partida (*) | Izena | Hasierako kreditua | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|---------------------------|--|--------------------|-----------------|--------------------|
| 1 0300.226.338.00.06 2026 | Gastuak errege koparen finala: pantaila+ | 0,00 | 5.445,00 | 5.445,00 |
| GUZTIRA | | 0,00 | 5.445,00 | 5.445,00 |

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaian, sinadura digitalaren datan.

Iñaki Ostolaza Esnal
Alkatea

KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

| Partida | Izena | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|---------------------------|-------------------------------|--------------------|------------------|--------------------|
| 1 1000.421.433.00.10 2026 | UROLA KOSTA, ENPRESA GARAPENA | 147.889,05 | 16.499,54 | 131.389,51 |
| GUZTIRA | | 147.889,05 | 16.499,54 | 131.389,51 |

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

| Partida (*) | Izena | Hasierako kreditua | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|---------------------------|--|--------------------|------------|--------------------|
| 1 1000.421.241.00.20 2026 | UROLA-KOSTA, LANERATZE ZERBITZUAK | 29.211,72 | 7.302,93 | 36.514,65 |
| 1 1000.421.324.10.10 2026 | UROLA KOSTA, SOLDADURA: LANBIDE HEZIK. | 21.438,84 | 9.134,93 | 30.573,77 |



| | | | | |
|---------------------------|----------------------------------|------------------|------------------|------------------|
| 1 1000.421.942.00.20 2026 | UROLA-KOSTA. GOBERNU ORGANOAK | 17.788,55 | 61,68 | 17.850,23 |
| | | | | |
| | GUZTIRA | 68.439,11 | 16.499,54 | 84.938,65 |

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaian, sinadura digitalaren datan.

Iñaki Ostolaza Esnal
Alkatea

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bueno bigarren kreditu aldaketa, hor ikusten duzuen bezela, 5445 eurokua da eta eta eiten dana da kreditu globaletikan atea ta kopako finaleko pantaila ordaintzeko hor ipini. Hemen bai aipatu nahi detela, ba bueno, Aldundiak, hitz eiten eon ginan gai honi buruz, eta ekarpen bat egingo du Udalari 3000 eurokua. Hori da, a ver noiz gauzatzen dan.

Hirugarrengo kreditu aldaketa, ba bueno hau da Urola Kostakin beti gertatzen zaiguna. Guk onartzen ditugu aurrekontuak eta gero beaiek onartzen dituzte aurrekontuak. Aurrerapen bat azaltzen diogu, aurreikuspen bat eta inoiz ez da koadratzen. Eta gero iten ditugu ba doiketak.

4.2.- 2025EKO UDALAREN LIKIDAZIOA ETA 2025EKO LIKIDAZIOAREN ONDORENGO EGONKORTASUN TXOSTENA JAKINARAZTEA.
ALKATE DEKRETUA

Udal honen 2025eko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2025(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZA GERAKINA

| | |
|---|--------------|
| 1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2025-12-31n: | 9.815.469,25 |
| 2.- Kobratu gabeko saldoak, 2025-12-31n: | 2.566.307,61 |
| Aurrekontuko zordunak : | 2.537.393,23 |



| | | |
|--|--------------|---------------|
| Aurrekontuz kanpoko zordunak: | 29.087,58 | |
| - Aplikatu gabeko kobrantzak: | 173,20 | |
| 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2025-12-31n: | | 1.996.338,50 |
| Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: | 1.268.251,27 | |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: | 728.188,22 | |
| - Aplikatu gabeko ordainketak: | 100,99 | |
| 4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3): | | 10.385.438,36 |
| 5.- Saldo kobragaitzak: | | 1.793.859,64 |
| 6.- Gehiegizko finantzaketa lotua: | | 400.945,58 |
| 7.- Hartzekodunen saldoa denboraldi bukaeran sarrera itzulketagatik: | | 27.118,78 |
| 8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6): | | 8.163.514,36 |

AURREKONTUKO EMAITZA

| | |
|--|--------------|
| 1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: | 1.292.086,62 |
| 2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: | -295.447,40 |
| 3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: | 1.282.295,42 |
| 4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: | 778,41 |
| 5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4): | 2.279.713,04 |

KREDITU GERAKINAK

| | |
|--|--------------|
| 1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak: | 2.103.426,19 |
| 2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak: | 3.122.523,12 |
| 3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2): | 5.225.949,31 |

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Zumaiian,
Alkatea



UNAI LARRAÑAGA URANGA:

Atsalde on. Gain gainetikan esplikatukoet, batzordian ere esplikatu zitulako lanirek puntu garrantzitsunak.

Bueno, esan gastuen aurrekontuei dagokionez, % 77,93 gauzatu diala aurrekontuak, Pertsonal gastua ia % 100, 96. Ondasun arruntak eta zerbitzuak %86an. Transferentzia arruntak %91. Eta inbertsiotan gauzatu den portzentaia %45,90 geratu da. Beraz, beste urtetakin konparatuta gauzatze maila altuagoa izan da. Ba esan detan 77,93 hoietan geratuta. Hoietatikan, noraino burutu diren obligazio onartuak, ba bueno, gure udalak esan ordainketatan behintzat oso oso egunean ibiltzen gerala eta 93,14 batian geratu dala, ba praktikamente 15 eguneko periodo bat daukeulako ordainketa tasatan.

Sarrerei dagokionez, esan baita ere aurrekontuak ba oso oso gertutikan bete bete direla: zuzeneko zergak % 100, ez zuzeneko zergak edo indirektuak 105, tasak % 107, oinarritzko transferentziak % 100, ingreso patrimonialak 84an geratu dira.

Gero salmenten kasuan, dakizutenez, 1.200.000eko salmenta hori aurrera ez da eramán, baina beste era bateko sarrerak euki ditugu 576.000 eurokuak. Beraz, % 48an geratu da. Eta kapital transferentziak 1.000.000eraino joan zaixkiu %200 betez. Orduan, ba bueno sarreren aurrekontuan betiere nahiko zuhurtziaz ibiltzen gera. Esan, ba % 100ean denak bete direla. Activos financieros, badakizuenez, hori ez da kubritzen behin ere eta % 83an geratu da hori. Eta horren betetze maila ere eskubide onartuekiko 94,39 geratu da. Beraz, ba esan bezela, oso oso maila altua portzentaia. Sarreretan beti ibiltzen gera eta aurten gastutan ere nahiko goitik ibili gera azken urteekin konparatuz.

Diruzaintza gerakinari dagokionez, esan gerakin guztira 10,385 markatzen dula, baina saldo kobrakaitzak 1,8 dazkaula. Hori esan, lan espezifikiko bat egiten ari dala diruzaintza baina administratiboki ezterela errezak hoiek hortik kentzia eta lanketa aurrera eramaten ai da, baina nolabait nei horrek nahiko begiko mina ematen dit ez ditugulako kobratuko. O sea, azken finean fallidoak dialako, baina hor balantzean jarraitzen dute.

Gehiegizko finantzari lotuta, 400.000 euro dazkau diru laguntzekin eta erabilera libreko gerakina 8.163.514an geratu zaigu 2025ian. Horregatik, dakizuenez, ba gaur egin ditugun txertaketak egin ahal ditugu gure egoera finantzieroa bikaina delako.

Aurrekontu egonkortasunaren, finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu arauai betetzeari dagokion buruzkoak, ba Ostok esan dun bezela, lñakik esan dun bezela, ba Foru Arauak ya martxan ditugu. Dakizuetenez, hiru izaten ditugu. Bat aurrekontuen egonkortasuna, esan 1,3 superabitean bukatu dula 1,3 milioi. Beraz, hori beteta, finantzen iraunkortasuna, hau da, zorpetze maila deitzen zakona, ba udal honek praktikamente eztaka eta % 4an jarraitzen dugu. Eta gastu araua ere ba aurten eh betetzat ematen da, zeren lehengo urtian baino gastu kopuru gutxiago izan deu, orduan, 3,20ko muga bat geneukan eta hor barruan sartzen gera.



Ondorioz, ba esan Zumaiako udalak 2025eko aurrekontuaren likidazioen onarpen espedienteak betetzen dituela aurrekontu egonkortasunaren, finantza iraunkortasunaren eta gastu arauen arloetan 2025 urterako ezarritako helburuak 1/2023 foru dekretua arauen arabera. Orduan, esan dedan bezela, 8,1eko gerakin erabilgarriarekin eta superabit batekin bukatuta, esan ba Udalaren finantza osasuna bikaina dala.

Besterik gabe, eskerrik asko.

IKER MARDARAS ARRIETA:

Eskerrik asko Iñaki. Arratsalde on berriz, bueno, lerro batzuk irakurri nahi nituzke, Unaiak esan duenaren arabera, eta ere bai gure ikuspegia mahai gainean jartzeko.

2025 urteko likidazioei buruz gure ikuspegia azaldu nahi genuke, lehen esan dudan bezala, izan ere, likidazioa Udalak benetan egin eta gauzatu dezakeenaren ahalmena erakusten baitu. Eta aurrekontuak berriz, asmoak, ez? Esan duzunez, Unai, ba behin betiko aurrekontua 23,7 milioikoa izan da, baina gastuaren gauzatze maila % 78a zenbaki borobiletan. Azkenean 5,2 milioi gelditu dira erabili gabe.

Gauzatze maila, bueno kapitulo batian edo biau eta lauak altuak izatea normala da, ze oso gastu konprometituak dialako eta fijoak eta itxiak, ez? Beraz, 5,2 milioi hoiere tarte gehiena inbertsioetan dator. Izan ere, ba Unaiak azaldu duen bezala, inbertsioen ejekuzioa %45,9koa izan da eta 3,5 milioi gelditu dia erabili gabe.

Guretzat kezkarria da, ba bueno, ejekuzio maila hau ez dala momentu puntual bat edo gauza puntual bat, baizik eta pixkat iraunkorra dala. Eta gehiago kezkatzen gaitu kapitulo edo gauza batzuetan konstantea dala edo persistentea dela: haur parkeen kasuan edo itsas kiroldegiko gruan edo herri bideen hobekuntzetan edo erreforma puntuetan, proiektu 1 2022tik datorrela uste dut, edo hilerriko obrak edo Marianton parkea, hoiere 2024tik edo aurre aurreagotikan etorri dia.

Ta 2025eko proiektuetan, ba besteak beste, ba Santioko arrantza dago, hilerriko obrak in zan gehigarri bat, 35.000 eurokoa eta zero gelditu da. Igerilekuko tranpolinak, komentuko kapera edo errebidetako obrak izan dia besteak beste.

Gure iritziz, ba horrek oso argi dio ba gauzatzeko prestatuta ez dauden proiektuak iragartzen direla maiz. Eta plangintza tekniko, lehenespena eta jarraipen falta dagola. Inbertsioak ez dira benetako konpromisoak, azken finean, errepikatu egiten dia baina ez dira betetzen. Urtean zehar gainera aurrekontua zuzendu egiten da. Hori logikoa da. Nik esaten dut, aurrekontua konpromisoa da, ez dago marmolean zintzelatua.

Bere flexibilita du, baina urteotan 31 kreditu aldaketa egon dia, nada menos. Guztira ia 4 milioiko gehikuntza suposatu du hasierako aurrekontuarekiko. Gaur onartu berri den kreditu gehigarriaren ba antzera.



Honek gastatzea ahalbitzen du. Bai, baina guri mezu kezagarri bat ere uzten digu. Eta lehen aipatu du: hasierako aurrekontuak ez du benetan gobernuaren lehentasunak islatzen, erabaki garrantzitsuak, ba bueno, aurrekontu prozesuaren kanpo egoten dira edo zuek esaten duzuen bezala, beharren arabera. Konkrezio handirik gabe. Aldaketen bidez gobernatzea, ba bueno, ez da malgutasuna, baina guretzat aurreikuspen falta edo puntu bat badu eta gardentasun falta ere bai.

Azkenik, ba aipatu duzu, zuk ere bukatu duzu diruzaintza gerakinakin, 8,5 milioi. Bikaina, oso ona ta hori, bai, egia da. Baina soberakin hori haundia da, baina aurrekontuaren zati haundi bat ez delako gauzatu. Dirua dago, baina gastatu ez dalako. Ez da aurreztu dalako edo era efiziente batean... baizik eta ez da gastatu. Dirua pilatzen den bitartean ba proiektuak eta inbertsioak gauzatu gabe jarraitzen dute. Udala azken finean ez dago dirua gordetzeko. Herritarrengandik jasotako dirua ba zerbitzu, azpiegitura eta politika publiko erabilgarri bihurtzeko dao.

UNAI LARRAÑAGA URANGA:

Esan dituzun proiektuak: Mari Anton lizitatuta, kapera lizitatuta, oaintxe ekarri degun kreditu aldaketa nolabait kritikatu dezu aurrekontutatik gehio sartzen genulako, oain ezteulako gastatzen kritika egiten dezu.

Baita ere nahi nuke aipatu, eta badakizute, eta hamendik eskertu eta goraiatu hirigintza sailak egin dun lana 2025 urte honetan, bi aparejadore bajaran izan ditugunian eta beste guztien artien ba lan hau atera izana. Horregatik dudik gabe eskertu. Eta bueno, autokritiko ere bagera, eta guk, pleno rendimienton egongo bagina, seguramente gauza gehio aterako ginuzkeen. Zeren beste gauzarik ez, baina ideiak eta gastuak nik uste det sobran dazkaula.

Bestetikan, bueno, % 45,90 esan dezu dirua aurrezten dugula ez gastatzearren. Zuen azken legealdian bataz beste... Bueno ez betzearren inbertsiotan, ze beste guztiek % 90etik gora dijuazte gastu guztiak. Inbertsiotako gaian nago batik bat. Badakizue ze bataz besteko likidatu zenuten zuen azken legealdian? Galdera. Nik bai. 43,94 bataz beste. O sea, gure legealdi honetako urte txarreana baino baxuagoa.

Baina bueno portzentaiak... Bai, bai. Datuak. Hemen 25an 45,90 eman deu eta zuen bataz bestea 43,94. Urten batian 2017an %36. Datua emate alde. Baina klaro, sei milioien % 50a 3 milioi da, ezta? Hortan danok ados. Lehen beste gauza batzutan baino nei matematikak ikaragarri gustatzen zatxit, zeren 3 1 baino gehiago da. Zuen bataz bestekoa 1,5 izantzan azken legealdian, gastuena. 2020tikan 19,6 milioi gastatu dira inbertsiotan. Nik ustet, ez Zumaian bakarrik, baizik eta horrelako tamainu bateko herri batek eman lezakeen daturik altuenetakoa. Eta hala ta guztiz ere, eta batipat diru laguntzen erabilera bikainakiko 1,8 milioi igotzeko aukera izan dugu gerakina.

Orduan ez deula gastatzen hori, bueno zuek baino gehiago esango det. Portzentaian. Eta bataz beste, eta gure urte txarreanean ere, zuen bataz



bestekoaren bikoitza. Orduan, asko gutxi, ni ez naiz balorazio hontan sartuko. Lehen euki deu HAPoan nahiko balorazio. Nik esaten detena da 45,90 gure urte txarrenian, zeren lehengo urtian %50a izan zan eta 23an %61. Gehiago da. Eta 3 milioi 1,5en bikoitza. Beraz, esatia erreza da. Agian, egitea ez hainbeste. Besterik gabe, eskerrik asko.

IKER MARSARAS ARRIETA:

Bai, Unai. Zenbakiak zenbakiak dia. Bai, baina guk ebatzi deuna da 2025eko aurrekontua. 2000 ta ez dakit zenbatekoa ebatzita dago eta ya aktan dago eta nahi duenak irakurri dezan eta ya está. Ordun, azken finean, hemen ari gara al objeto. Zein da hemen asuntoa. Eta ez da, pues bueno, Oierrek in zuna edo Iñakik in zuna edo, ez dakit. Ordun, ez dakit ze esan nahi dezun horrekin. Ba oso ondo. Bai, gure garaian in gendun. Gure azalpenak eman genitun eta hori, ta listo. Orain ari gara 2025ekoari eta proiektu batzuei eta lan batzuei, non era konstante batean egin gabe daudenak. Eta batzutan herritik jutea besterik ez dao, nolabaiteko zolaketak edo azpiegiturak eta hori nola dauden. Orain lizitatu duzuela hori? Hitz egingo du 26an, hor tokatzen dalako. Eta espero dut eitea. Baina nik hitz egin dudana da aurtengoa. Besterik ez.

UNAI LARRAÑAGA URANGA:

Nik ez Det baloratu, nik bakarrik egiten detena da, eta askotan egin deten bezela, zeren askotan bestia baloratzia erreza da, baina konparaketa bat egin behar da batzutan benetan egin dena balorian jartzeko. Zeren 1 2 baino gutxio da eta orduan nik ekartzen detena, nik ez det balorazioik eiten eta oso gutxitan sartzen naiz balorazioetan. Nik esan detena oin momentuan gure egoera finantziru bikaina dala eta hori behintzat onartu dezu. Eta bestian egin detena da jarri bat bestian albuen, zer dan gutxi, zer dan asko, zenbaki errealetan. Ni ez naiz balorazioetan sartu. Eskerrik asko.

4.3.- ALKATE EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkate ebazpenen berri eman du Alkateak.

5. MOZIOA

Bueno ez det osoikan irakurriko e. Azken finean da Udalak eskatzea, kasu hontan ez dakit Jaurlaritzari edo Euskotrenbide sariari, ba bueno, denok dakigu ba Zumaitikan Donostira trena 30 minutuero juten dala eta astebukaeretan ordubetero juten dala. Gogoratzen dut inauguratzen eon ginanian zubia, baita ere aipatu nula komeni zala, zeren azken finean jende asko pilotze zala astebukaeretan eta nola geo ta gehio erabiltzen dugun trenbidea, ba ondo egongo litzakeela hori egitea.



Zumaiaiko Udala

2026IAKU0004

Eta bueno ba gehienbat ofizialki edo behintzat eskaera hori luzatzia, ba ondo iruitze zitzaigula ta horreatikan dago mezu hau eskatuz ba ea ahal dan azkarren astebukaeretan orduerdiro ipintzia. Hori besterik ez.

Aldeko botoak: 15 (8 EH Bildu, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

5.- ESKARI – GALDERAK

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Badakit berandu gabiltzala, ez det irakurriko, baina dakizuen bezala, itxialdi bat egin dute egoitzako langileak eta ELAk goizean bialdu dit ohar bat, ba bueno, mozio bat bezela sartzeko. Esan diot mozio bezela sartzeko, erregistratu in behar dutela, berandu dabiltzala, justu dabiltzala eta ezin izan dutela sartu. Ba ez dakit nun zeuden han eta orduan eskatu didate aipamen bat egiteko. Ba jakin dezagun danok ze egoeretan dauden. Oso gainerikan: 170 egun greban, soldata arrakala azpikontrataturako enpresentzako lan egiten duten zaintzailien eta funtzio publikoan edo langile publikoen artian 10.000 euroko arrakala dagola. Eta, ba bueno, jakinen gainean eoteko eta ahal dezuen heinian bakoitzak bere taldian, bere talde politikoan eskatzeko ea ahal dan azkarren hau bideratzen dan auzia.

Ta ya hori esanda, bukatutzat ematen deu ohiko osoko bilkura. Benga, maiatza arte.

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak eta berrogeita hamar direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Zumaian, 2026ko maiatzaren 22an

IDAZKARIA
Gorka Urgoiti Aguirre

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus • e-mail: udala@zumaia.eus

EKS | CSV: ESKU9b7a75f8-fea7-4b22-b210-047637b241c0



Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=08110>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=08110>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026IAKU0004-Dokumentu orokorra/Documento genérico ()